



Txondorrek bertatik bertara Saran

→ 53

**Elizondoko Feriak**

Gehigarri berezia → 11-20

**BERA → 25**XXIV. Lurraren Eguna  
urriaren 24an**DONEZTEBE → 35**Haur Eskolarako  
lanpostu deialdia**GOIZUETA → 44**Turismo Plana garatzeko  
helburuarekin lanean**BAZTAN → 48**Euskal kantuzaleen  
hitzordua Amaiurren

## «Zeliakoa gaixo kronikoa da eta eskubideak ditu gaixo guztiek bezala»

Zeliakoen tratamendu bakarra bizi osoko dieta egitea da. Organismoak ez die glutenik onartzen eta horregatik elikadura zorrotz zaindu behar dute.

Mari Jose Mortalena Nafarroako Zeliakoen Elkarteko idazkari teknikaria da. Duela 15 urte sartu zen elkartean, alabari eritasuna antzeman ziotenean eta gaur egun koordinatzaile lanetan aritzen da, pertsona zeliakoari eta haren familiari laguntza ematen.

**ERREPORTAJEA → 4-5****Mari Jose MORTALENA | Baztan****ELKARRIZKETA → 3****Solaslaguna proiektua abian**

Euskararen erabilera indartzeko Solaslaguna egitasmoaz aritu zaigu Oianko Garde dinamizatzaile baztandarra.

**KIROLIZKETA → 56****Hirugarren denboraldia profesionaletan**

Euskaltel-Euskadin ari den Mikel Nieve leitzarrak asteburu honetan emanen dio denboraldiari bukaera.

**ZOZKETA → 63****TTIPI TXARTELArekin beti irabazten da!**

**ESKAINZA  
BEREZIAK**



muebles  
**ORDOKI**  
altzariak

ERAKUSKETA: Bittiria 26  
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27  
LESAKA

Tel. 948 63 77 80

**Estilo ugariko  
mobleak**



# Birziklatu



Ontziek bizitza luzea dute



Kartoiako ontziak, papereak,  
egunkariak, aldiakariak.



Plastikoak ontziak,  
latzak, brikoak.



Beirako botiak,  
faskoak, poteak.









SEPARAR PARA RECICLAR

Baztanen, Malerrekan eta Bortzirietan Solaslagunaren dinamizatzaile lanean ari da Oianko Garde. Euskal Herri osoan funtzionatzen du egitasmoak, hemen solaslaguna

dugu, baina, berbalagunak eta mintzalagunak ere badaude. Solaslaguna, berez, 2007an hasi zen Bortzirietan, Euskara Zerbitzuaren bidez eta hurrengo urtean

Baztanen eta Malerrekan ere animatu ziren. Hasieran ez zen dinamizatzailerik, baina iaztik, Topagunearen koordinazioaren laguntzaz dinamizatzailea ari da lanean hiru haranetan.

Oianko GARDE | Solaslaguna egitasmoaren dinamizatzailea

# «Euskararen transmisioan parte hartzeaz gain lagunak egiten dira»

## A. AROTZENA

### Nola definituko zenuke Solaslaguna?

Eskuara praktikatu eta ahal den neurrian, euskaraz bizi nahi duten euskaldunei bideraturik dagoen programa da. Eskuaraz solasteko ohitura duten lagunak –bidelagunak–, solasteko ohitura ez dutenekin –bidelariak– elkartzean datza. Bidelariak eskuaraz solasteko ohitura hartzen du eta solasterako orduan, lotsak galtzen eta jarioetasun gehiagorekin solasten ikasten du. Bidelagunaren papera ez da hauei zuzentzearena, horretarako euskaltegiak eta irakasleak baitaude, lagun arteko elkarrizketa normalean aritzea baizik.

### Orain arte, zenbat jendeke parte hartu du? Zer nolako jendea bilatzen duzue euskara ikaslee-kin biltzeko?

Azken hiru urteetan, 12 talde inguruk parte hartu dute. Taldeak 3, 4 edo 5 lagunekoak izaten ahal dira. Bidelagun bat eta gainerakoak bidelariak. Ez dugu inolako perfilik bilatzen, euskalduna bada, eskuaraz komunikatzeko gogoak baditu eta egitasmo honetan parte hartzeko prest badago, ongi etorri izanen da!

**Gaur egun, ez da erraza izanen horretarako boluntarioak bilatzea?** Egia erran, bidelariak aski gehiago hurbiltzen di-



TTIPI-TTAPA

Oianko Garde gartzaindarra da egitasmoaren dinamizatzailea hiru haranetan.

ra, euskaldun zaharrei gehiago kostatzen zaie, aunitzetan gu gara beraiengana joaten garenak. Azken finean beraiek eskuaraz badakite, ez dute bidelariak duten interes berdina, beren egin beharra laguntzea baita. Ene uste apalean, pena da honelako euskalduntze proiektu batean bidelagun gehiagok parte hartu nahi ez izatea. Azken finean, astean ordu bat bertzerik ez da.

### Normalki, zer egiten duzue solaslagunek?

Beraiek erabakitzen du-

## HELBURUAK

«Euskal eremua tinkotu eta euskal sareak zabaltzea; euskaldunen arteko hartu-eman sarea antolatzen laguntzea; euskararen erabilera-  
ren garrantziak ohar-taraztea eta oraindik euskaldun oso ez diren herritarrei ikas-prozesua bizkortzeko laguntza eskaintzea dira Solaslagunaren helburu nagusiak»

te zer egin. Taldeak dituen zaletasunen edota adinaren arabera egiten dira taldeak, honela, euren artean konpontzen dira. Batzuetan elkarrekin afaltzera joaten dira, bertze batzuetan pasaletara, kirola egitera... Gero, hilean behin, saio osagarri bat antolatzen dugu, lehengo urtean lehenbizikoa Solas-poteoa antolatzea izan zen eta arrakasta handia izan zuen, aurten ere egiten dugu, honetaz gain, xaboi naturalen tailerra, irri-terapia eta bertze jarduerak

ere egin genituen. Saio hauetan solaslaguneko talde desberdinek bat egiten dute, euren artean elkar ezagutzen dute eta egitasmo honetan beraiek bezalako bertze hainbertze badaudela ere ikusten ahal dute. Gainera arras ongi pasatzen dugu.

### Aurtengo kanpainak ezaugarri bereziren bat badu?

Lehenengo urteko esloganean proposamena bota genuen: *NAHI DUZU? Gurekin gelditu, kirola egin, pote bat hartu, parkean ibili, txokoan afaldu, Mendaurrera igo, besta bat antolatu...* Eta aurten, berriz, erantzuna eman diogu lehengo urteko proposamenari: *NAHI DUGU! Ezagutu, erabili, elkartu, euskaraz bizi...* Berraz, egitasmoan parte hartzea pentsatzen ari zate horiek, badakizue zer erran, NAHI DUGU!

### Beraz, animatzeko zer erranen zenuke?

Esperientzia ederra da, euskararen transmisioan parte hartzen dugu, lagunak egiten ditugu, etxetik ateratzeko aitzakia ezin hobea da, jendea laguntzen dugu, Euskal Herria euskalduntzen laguntzen dugu, ez da denbora aunitz beharrik... Informazio gehiago jasotzeko hurbilduzure herriko euskaltegira edota euskara zerbitzura. Animo eta laster artio!

OSASUNA → GLUTENIK GABEKO ELIKADURA

# 30 zeliako inguru daude Baztan, Bortziriak, Bertizarana, Malerreka eta Leitzaldean

Zeliakoen tratamendu bakarra bizitza osoan glutenik gabeko dieta egitea da

Hertze meharreko gaixotasun kronikoa da zeliakia, glutenik onartzen ez duten pertsonen dutena. Konponbide bakarra glutena

erabat eta betiko elikaduratik kentzea da eta zorrotz egin behar dute hori, ondorio larriak ekar baititzake bertzela.

## G. PIKABEA

Zeliakoak ez du botirik behar; baina jaten duen guztia zorrotz kontrolatu behar du. Tratamendu bakarra bizi osoan dieta da; botika, beraz, kasu honetan, jantzia bera da. Garia, zekalea, garagarra, edota oloa onartzen ez dituenak da zeliakoa, ezta horietatik eratorritako bertze janaririk ere: ogia, pasta, pastelak, txokolatatzak, izozkiak, zerealduak edo infusioak, aitzinetik prestatuakotako jakiak... Glutena deritzen proteina bat dute, zeliakia duten pertsonen organismoak onartzen ez dutena, hain zuzen. Glutenak gliadina du, eta substantzia hori behar bezala onartzen ez denean, hertze meharreko ileak atrofiatu egiten dira. Eta glutena jateak ondorio larriak sor ditzake zeliakoengan: beherako kronikoa, tripako mina, pisu galera, anemia, nekea, umore aldaketa... Eta helduetan baita depresioak, antzutasuna, ilearen galera, abortu etengabeak edo hileko irregularra ere.

Zeliakia ez da haurretan bakarrik agertzen; edozein adinetan atera daiteke eta adinaren arabera sintomak desberdinak dira. Biopsia da pertsona bat zeliakoa den ala ez jakiteko probarik eraginkorrena.

Betidanik sortu izan den gaitza da zeliakoa, baina oraindik eresobera ikertu gabea. Urteetan aunitz aitzineratu bada ere, oraindik egiteko dezente gelditzen da. Tokian tokiko elkarteak dira aitzinerapausoak lortu dituztenak, eta azken 30 bat urteotan horretan dabil Nafarroako Zeliakoen Elkartea ere. «Pertsona zeliakoari eta haren familiari laguntza ematea da elkartearen oinarritzko betebeharra, eta zeliakoarentzat egokiak diren elikagaien liburuak egin eta banatzea». Horrela azaldu digu Mari Jose Mortalena baztan-darrak, Elkarteko idazkari teknikaria edo koordinatzailea denak. Duela 15 urte sartu zen elkartean, gaur egun 16 urte dituen alabari eritasuna antzeman ziotenean.

## ZELIAKIA

«Zeliakoa gaixotasun kronikoa duena da eta bertze gaixoei bezala eskubideak dituzte»

«Gobernuak zeliako bakoitzari 250 euro egokituko zaizkiola erran arren, denon artean zatitu behar da eta ez da kopuru horretara ailegatu»

Mari Jose MORTALENA  
Nafarroako Zeliakoen Elkartea

## DATUA

# 1.800

EURO  
gehiago gastatzen ditu zeliako batek urtean janarian, zeliako ez denarekin konparatuz.

Emilio Olivera medikua izan zen elkartearen sortzailea: «Iruñean eta Madrilin ibiltzen zen eta Madrilin izan zuen lehen-



dabiziko zeliakoaren berri. Gero hemen ere ikusten hasi zen, eta garai hartan hemen zeliakoentzako jatekorik ez zegoela eta, zeliakoen gurasoei biltzea proposatu zien, Madrildik berak ekarriko zituela gauzak eta elkarri laguntzeko», azaldu digu Mortalena. Gaur egun ere, elkarteak «bat bertzeari laguntzeko» dagoela gaineratu du.

Nafarroan gutti gorabehera urtean 120-130 pertsona berri agertzen dira zeliakiarekin, eta horietatik erdiak helduak dira. Gaitza diagnostikatu-takoan, Nafarroako Zeliakoen Elkartera jotzen dute aunitzek laguntza eta aholku eske, eta gaur egun 1.050 bazkide ditu. Halere, familian zeliako bat baino gehiago egon daitezkeenez, Nafarroan 1.300 daudela kalkulatu du baztandarrak. Gure eskualdean ere badira; Mortalena hitzetan, Baztan, Bortziriak, Bertizarana, Leitzaldea eta Malerrekan 30 inguru. Elkarteko bazkide diren heinean, elkarteak eskaintzen dituzten zerbitzuak

dituzte eskura: dietetikan aditua, medikua, sukaldaria, aholkularia –Mortalena bera... Eta 5-12 urtekoentzat, 13-17 urtekoentzat eta 18 urtekoentzat ere kanpaldiak antolatzen dituzte. Baita kanpainak egin, ipuinak argitaratu...

## URTEAN 1.800 EURO GEHIAGO JANARIAN

Elikaduratik glutena kentzea da kontua, baina kasu guztietan, glutenik gabeko dieta egitea ez da kontu erraza. FACE Espainiako Zeliakoen Elkartearen Federazioaren arabera, dendetako produktuen %80k glutena du. «Gure kultura ogi-irinarena da eta denetara ko erabiltzen dugu», dio elkarteak koordinatzaileak. Urtekin glutenik gabeko gero eta produktu gehiago sortu dira, baina direnak hagitz garestiak dira: makarroi edo fideo poltsa arrunt bat euro azpitik ordaindu behar denean, glutenik gabekoak hiru eurotik bertz euro bitartean ordaindu behar dira; glutenik gabeko ogi birrinduren ki-



Mari Jose Mortalena Nafarroako Zeliakoen Elkarteko koordinatzailea, zeliakoek jan ditzaketen jateko eta edariak biltzen dituen FACEren liburua eskuan duela.

loko poltsa batek 12 eurotik gora balio dezake, eta glutenik gabekoak euro eta erdi balio du; kiloko gaileta maria ezagunek 12 euro baino gehiago glutenik gabekoak badira, eta bi euro azpitik arruntek; kiloko madalena poltsa bat, glutenik gabekoa, 17 eurotik goiti eta lau euro arruntak... FACEren arabera, urtean, bataz bertze, zeliako batek ez denak baino 1.800 euro gehiago gastatzen dituanarian. «Baina prezioari ezin zaio begiratu, nahitaez erosi behar dugulako», dio Mortalenak. FACEren liburuxkan oinarritzen dira zeliakoak. Hor agertzen da zer jan edo edan dezaketen. Hortik aparte deus ere ez.

Gastua Administrazioak bere gain hartzea da Nafarroako Zeliakoen Elkartearen erronketako bat: «zeliakoa gaixotasun kronikoa duena da eta bertze gaixoez bezala eskubideak dituzte. Diabetikoek intsulina eta botikak dituzten bezala, zeliakoaren botika nolabait errateko janaria da», konstatu digu koordinatzaile-

Arantzazu LIZARTZA, zeliakoa (Leitza)



**«Glutenik gabeko dietarekin hobekuntza nabaritu nuen. Kiloak irabazten joan nintzen, baita energia eskuratzen ere».**

Zortzi urte zituela diagnostikatu zioten zeliakoa zela Arantzazu Lizartza 16 urteko leitzarri: «ondoezik nengoan, oso mehea nintzen eta uneoro nekaturik sentitzen nintzen. Haur guztiak saltoka, korrika eta jolasean ibiltzen ziren, baina ni ez nintzen gai haien erritmoa jarraitzeko eta, beraz, eserita egoten nintzen haiei begira. Eskolan batuketa edo kenketak egite hutsarekin nekaturik sentitzen nintzen». Horrez gain, «edozein otorduren ondotik sabeleko mina jartzen zitzaidan eta minutu gutxiaren ondoren jandakoa bota egiten nuen. Nolabait azaltzeko, etengabeko gastroenteritisa zen». Hasieran anorexia zuela pentsatu zuten medikuek baina analisi bidez anemia zuela ikusi zuten gero, eta biopsia egiterakoan egiaztatu zuten zeliakoa zela. Eritasuna antzeman ziotenean sartu zen Nafarroako Zeliakoen Elkartean eta glutenik gabeko dieta egiten hasi zenean, hobekuntza «azkarra» nabaritu zuen leitzarriak: «kiloak irabazten joan nintzen, baita energia eskuratzen ere. Egun digestioa ere oso ona da, edonorenaren gisakoa». Dieta egitea zaila egiten zaion galdetuta, «etxean ezetz» erantzun digu. «Baina familiako edo lagunaren bazkarietan gauza goxoak jaten direnez, izugarri zaila egiten da». Horixe egiten zaio gogorra Arantzazuri: «ingurukoak gauza goxoak jaten ari diren bitartean haiei begira egotea». Halere, urteekin zeliakoentzat produktu gehiago sortu dira eta ondorioz, «inbidia txikitzen joan da, nahiz eta gauzek zapora kaxkagarroa izan». Kanpoan jatekotan, berriz, etxetik eramaten du.

ak. Duela hiru bat urte hasitzen Nafarroako Gobernua zeliakoentzako diru partida bat bideratzen. Urtetik urtera gehiago eman du; ez, ordea, nahikoa. Lehendabiziko urtean 25.000 euro eman zituen Nafarroa osoko ze-

liako guztientzako (bakoi-tzari 35-40 euro), gero 50.000 euro... Aurten, 217.546 euro iragarri berri ditu. Baina Mortalenak azaldu digunez, hasieran 230.000 euro banatuko zituztela errana omen zuten. Gainera, Gobernu-

Adela ARLEGI, zeliakoaren ama (Bera)



**«Jatekoarekin kasu ematea da kontua. Hemen ez dago grisarik, zuria ala beltza da dena»**

Zortzi-bederatzi hilabeterekin, glutena sartu ziotenean egin zuen okerrera Adela Arlegiren (Bera) alaba zaharrenak. «Tripa ikaragarri hazitu zitzaion, beherakoarekin hasi zen, eta poliki-poliki janaria uzten joan zen. Ez zuen jateko gogorik izaten eta mehartu egin zen». Analitika batekin jakin zuten zeliakoa zela. «Gure kasua nahiko garbia izan zen, batzuk denbora gehiangoan egoten baitira gaitza ezin harrapatuz. Baina gaizki egondu zen bizpahiru hilabeteak gogorrak izan ziren». Zeliakoa zela erran ziotenean Nafarroako Zeliakoen Elkartera jo eta handik bidalitako informazioarekin eta zeliakoen senideekin elkartuz hartu zuten martxa. «Haur zaharrenari bi urte osorik kosta zitzaizkion analitika ongi ateratzea. Fisikoki ongi zegoen, baina heretzeak hagitz gaizki zituen». Eta orain, bigarren albarekin daude zalantzan: «hasieran argi zegoen glutenak kalte egiten ziola. Analitika batean gaizki zegoela ikusi zen, eta genetikako analitikan ez. Galdera airean gelditu zen, baina glutena kenduta hobera egin zuen. Orain, berriz, ez dakigu zeliakoa den ala ez, glutena jaten du eta ez dio kalterik egiten. Sei urte egiten dituen biopsia egiten diote eta orduan argituko da». Kontuak kontu, alaba zaharrenaren kasuan, aspaldi gelditu ziren gibelean hilabete gogor haiek. Urte batekin zazpi kilo pisatu bazituen ere, gaur egun, glutenik gabe bizitza normala egiten du. Jatekoarekin kasu ematea da kontua: «sukaldatzeko ezin dira kuxara berdinak erabili, ogi papurrak ukitzean eskuak garbitu behar dira, kanpora joatean etxetik eramane edo aitzinetik jatekera abisatu.... Hemen ez dago grisarik, zuria edo beltza da dena».

ak zeliako bakoitzari 250 euro egokituko zaizkiola jakinarazi arren, Mortalenaren hitzetan, «denen artean zatitu behar da eta ez da kopuru horretarako ailegatuko».

Gaixotasuna normalizatzea da bertze helbu-

ru nagusia: «egunean bortsaldiz jaten dugu, eta zeliakoek edozein tokitan jateko eskubidea izatea nahi dugu». Bada egitekoa, eta Mortalenak dioen bezala, «ez da urtebeterako lana, denbora luzekoa, baizik».



**Nire txanda**  
Sergio PANAGUA

## Dena izan genezakeen

Udazkeneko arratsalde eder horien pribilegioa daukagu, berde, teila eta gorri-hori koloreko inguru zoragarri hori. Baina halere, umezurtasunera goaz.

Marginazioari kontra egiteko kartelak nonahi. Grebak. Eskubideak ez galtzeko manifestazioak. Eta, batez ere, esperantzarik gabeko isiltasun aunitz. Ez dute inporta oihuek, zitalkeriaren eta harrapakinen makinariak aitzinera segitzen du, oihu horiek itoaraziz. Bien bitartean: desberdintasunak, inkomunikazioak, diskriminazioak, matxismoak, individualismoak eta elkartasun ezak eremuak irabazten dituzte. Gizamixeriek eremuak irabazten dituzte. Mundu osoa hirugarren mundu bilakatu. Jada ez da bakarrik etsitako Afrika. Ez da bakarrik giza gatazkez osatutako Amerika handia. Gero eta gehiago, ipar hemisferioak ere bere jendea pobretasunera eta bigarren mailako hiritartasunera kondentzen du. Denetatik daukagu dena izateko. Bakar-bakarrik bihotzak aldatu beharko genituzke.

«Bakar-bakarrik bihotzak aldatu beharko genituzke»

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Tortura? Venezuelan!

Atxilotuei deskarga elektrikoak, isekak, kolpeak... ematen ikusi dugu telebistan. Estatu Batuetan, Iranen, Israelen... Hemen ez baita halakorik, nork ikusi du telebistan? Nork ikusi ditu epaileek galdeketeetan agintzen dituzten bideo irudiak? Azken atxilotuen adierazpenak torturapean lortu direla aipatu du Venezuelako enbaxadoreak eta horrek aztoratu ditu politikoak. Ez torturak.

## Nabarmentzekoak



Xavier GABRIEL  
Onddo espaziora

Sort-eko Urrezko Soragina famatuko loteria saltzaileak Elgorriagako onddo espaziora egin gogo duen turismo-bidaiera eramanen duela hitz eman zuen kofrade izendatu zutenean.



Dudley HERSCHBACH  
Nobel Sariduna Peru-harrin

1986an Kimika Nobel Saria irabazi zuen estatu batuarrak. Berrikigure inguruan ikusi dugu, Leitzaoko Peru-harrira joan baitzen Plazaolan barna bizikletaz, Etxenike ikerlariarekin batera.



Oihan LARRETXE  
Aita-semeak finalean

Nafarroako aizkolari txapelketaren finalean izan da lehen aldiz Oihan eta historian lehen aldiz aita-semeak aritu dira final batean. Donato hirugarren izan zen, eta Oihan bosgarren.

Atzera begira → 1991.10.24 / TTIPI-TTAPA 72. zbk



## Sarako arnogintzaz erreportajea

*Sarako arnogintza: Belaunaldiz belaunaldi pasatutako ohidura zaharra izenburupean, gure inguruan egiten zen ardoaz erreportajea osatu zuen TTIPI-TTAPA duela 19 urte. Orduan, Sarako hamar baserritan banatuak 5.000 bat mahatsondo zeuden. Bottoineneko Mixel Gerendiainek, mahatsa zaintzeko eta ardo egiteko sekretuak azaltzarekin bat «etxeko arnoa eskaintzea plazer bat da» adierazi zigun. Halere, gazteentzat ez zela lan interesgarria onartu zuen, «amodio eta sentimendu kontua da gehiago; gurasoengandik eta gurasoen gurasoengandik ikasitako zerbait da».*



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredaktore burua Gurutze Pikabea Publizitatea Usoa Vicente, Kulturkari SLU Berriemileak Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Itxaso Arrieta, Markel Lizasoain, Eneko Miteo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joanes Garcia...

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztebea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

### 2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....37€	Europa	.....55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....31€
Ipar Euskal Herria	.....55€	Amerika eta Australia	.....123€	Leitza	.....15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



## Kolaborazioak

### Botuak debalde, biziak garesti

Joseba URROTZ

**S**unbillan gertatu berri den istripu larria, non bertako gazte bat hil den, nahiko arrazoi iduritzen zait gai hau berriz ere aipatzeko. N121A errepidea arriskutsua da oraindik ere. Are gehiago, nire ustez, sekulako trakeskeria egin da ustezko moldaketa lanekin, behin bazterrak urratzen hasi-eta. Zenbaitzuk erranen dute aitzinekoa ikusita aunitz hobetu dela. Beharbada bai, baina onargarria ote da lehen baino kamioi gehigok zeharkatzea gure bazterrak bertan deus utzi gabe, arriskua eta heriotzak bertzerik ez? Dozena erdi bat heriotz urteko, kopuru eroso ote da onartua izateko? Gure eskualdea Nafarroako Gobernuak atzendua daukatela ez dago zalantzarik. Nabari da halabeharrez sartzen dutela dirua, bertze gisara nabarmenegia izanen litzatekeelako... Xuhurrerian inbertitzen dute hemen, *borontinbortx*.

Hemen lanik aski ez-eta hirietara joan behar, eta gainera bertako ekonomiarekin zerikusirik ez duten kamioi andanaren mehatxupean ibili behar? Bai, gure jauntxo eta anderetxoak agertu agertzen dira, inaugurazio eta bisitak egitera bertzerik ez bada ere, guk hala eskatuta *pamasjoder*, gero betetzen ez dituzten aginduak entzuteko. Istripua izan den tokitik metro guttitara egon berria zen Miguel Sanz jauna. *Pagafantas* izatea gustuko al du-gu?

UPNko botoemaile agurgarri horiek: egon al zarete inoiz Ultzamatik harat? Ikusi al dituzue Jakara eta Logroñora egin dituzten errepide ederrak? Eta Erriberan dauden industrialde eta azpiegiturak? Bai, hemen biztanle guttiago gara eta ez da hainbertze dirurik bilduko, hori al da arrazoa hemen inbertsiorik ez egiteko? Eta orduan, non dago elkartasuna? Mendialdeko herri tikiak urperatu (ltoitz), eta zelaietako herri haundiak aberasteko eskatzen den elkartasun hori? Bai al dakizue PSN eta UPNek izkutuko akordioa dutela aurrekontuetako diruak haien artean banatzeko, haiek gobernatzen dituzten udaletan, adibidez? Ez zaizue lotsagarria iduritzen?

Mesedez, pentsatu ongi hurrengo hauteskundee-tan UPN eta PSNri botua eman aitzinetik.

«Gure eskualdea Nafarroako Gobernuak atzendua daukatela ez dago zalantzarik. Nabari da halabeharrez sartzen dutela dirua, bertze gisara nabarmenegia izanen litzatekeelako... Xuhurrerian inbertitzen dute hemen, *borontinbortx*»

### Denek behar dugu aukera bat, bizi baldintza duinak eta errespetu bat

Nazara ARREGI (Bortzirietako Jendarte Zerbitzua)

**A**urten zazpigarren aldiz ospatuko da Mugarik Gabe ekitaldia Beran. Festa honen helburua jendea sentsibilizatzea da etorkinen egoeraren inguruan. Horretarako kulturartekotasuna lantzen da, Bortzirietako biztanleak festa giroan etorkinekin elkartuz, harreman berriak eraikitzen dira eta aldi berean, norberak bere kultura eta ohiturak beste ezagutarazten dizkiete. Azken batean, kultur trukaketa bat sustatzeko era bat da.

Urtero, Berako Inti Kausay elkarte eta Bortzirietako Gizarte Zerbitzuek elkarlan bat eramaten dute festa hau antolatu ahal izateko. 2004. urtean hasi zen eta geroztik urtero antolatu da. (...) Etorkinen batzordea osatu zutenek, 2004an etorri berri ziren etorkinekin harreman gune bat sortu nahi izan zuten. Honela, batzorde bat osatu zen ekimen batzuk antolatu ahal izateko. Lehenengo topaketa 2004ko ekainean egin zen eta oso hunkigarria izan zen, hurbilpen garrantzitsu bat izan baitzen bertakoen eta etorkinen artean. Geroztik urtero antolatzen da eta hedatzen joan da, azken urte hauetan Bortzirietan antolatzen baitugu eta geroz eta eragile gehiagoren parte-hartzea eta laguntza jasotzen da. Etorkin Batzordea udaleko ordezkariak eta herritarrek osatzen dute. Parte hartzen duten bolondresak, batzuk jatorriz bertakoak dira eta beste batzuk etorkinak. Urtero ilusio berarekin, bakoitzak bere ezaugarri eta gaitasunekin ekarpen bat egiten du festa hau gauzatu ahal izateko.

Honela, urtean behin, etorkinek beraien artean eza-gutu, elkartzeko eta beraien giroko besta bat egiteko aukera dute. Orain, noski, helburu nagusia Bortzirietako herritarrek ere biltzea da, bertakoak sentsibilizatzeko asmoz etorkinen integrazioa bermatu ahal izateko Bortzirietan. Modu honetan, jarrera arrazistak, xenofoboak eta baztertzailak saihestea edo gutxienez murriztea beharrezkoa litzateke jendartean harrera egokiago bat eman ahal izateko munduan zehar migratzen duen edozein pertsonarentzat azken finean. (...) Garrantzitsua da, gogoratzea gure senideak erbesterratu zirela garai batean eta gaur egun ere bertakoek migratzen dugula arrazoi sendoengatik gure familia eta herrialdea uztera behartuz. Horregatik, denek behar dugu aukera bat, bizi baldintza duinak eta errespetu bat.

Bukatzeko, komisiotik beti azpimarratzen den gauza bat aipatu nahiko nuke. Besta egunean, etorkinek ere beti aipatzen didate, azken finean, urtean behin antolatzen den festa bat dela eta ez duela jarraipenik izaten ondoren. Motz geratzen da, alegia. Urte osoari begira ekimen gehiago bultzatu beharko lirakeke, izan ere, urtean besta bat antolatuz bakarrik ez baititugu gure helburu eta espektatiba guziak asetzen ahal. Baina, betikoa, diru aldetik geroz eta murriztago gabil-tza eta beste ekimen batzuk martxan jartzeko ez du-gu baliabiderik.

**Irakurleak mintzo****Joakin Martinen  
sendiaren  
oharra****Jokin MARTIN PEÑALBA**  
Joakinen semea

Zuengana nator nere familiaren izenean eskerrik beroenak emateko asmoz. Ezkurrako biztanleei esker gure aitaren heriotzaren ondorioak ekarri dituen gastuak -2.366,52 euro nola edo hala ordainduko ditugu. Alde batetik elizan 420

euro bildu ziren eta gero biztanle batzuk pertsonalki emandako laguntza 968 euro izan dira. Hau da, momentu edo une honetan baditugu 1.388 euro eta itxaropen handia dugu falta den dirua lortuko dugula. Horregatik, familia osoaren izenean eskerrik beroenak denei. Zorionez, herri honetan badira bihotz onekoak, adiskideen behararak ikusirik bere esku zabalak eskaini dizkigutenak. Horregatik, zuen laguntzarekin itxaropenez segituko dugu.

**Bota bertsoa****Esteban AROZENA • Neurria: Hamarreko handia****Santiagooko Bidea**

Mistizismoa, senderismoa, promesak edo fedea, Peregrinoek zergati hori mantentzen dute gordea. Nahiz Gobernuek eta Elizak bereganatu idea, kontrolatzerik oraindik behintzat ez dute lortu ordea. Araugabea ta librea da Santiagorako bidea.

Ze emozio jotzen denean Compostelako aldaba! Dagoeneko iraganean gelditu da Orreaga. Aurretik zenbat bizkarreko min, tendinitis eta baba! Zorronkak eta usaiengatik lorik gabe zenbat gaba! Baina halare gehien-gehienak berriz joaten dira hara.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.net**  
 Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**  
 Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



**ttipi-ttapa  
FUNDAZIOAK**

**zure laguntza  
behar du**

eginzazu ttipi-ttaparen alde  
proiektu zenbakia: **15.996**

Eska ezazu ttipi-ttaparen proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu ttipi-ttapa 2010eko abenduaren 30a baino lehen.

dagoeneko  
**856**  
LAGUNEK  
egin dute  
gure alde



*Patsa eder hau  
izanen duzu  
opari.*

**can**  
gure bezeroek  
aukeratutako  
proiektua



**Prentsatik bildutakoak**



«Erremonteak 400 euro inguru balio ditu, baina normalena pilota eskolak edo enpresak edukitzea da. Eskolan dabilzanek profesionalek utzitako erremonteak erabiltzen dituzte. Aldi berean, hori da herri batzuetan erremontean ez aritzearen arrazoia. Esku pilota bat hartu eta edozein paretetan joka daiteke. Baina erremontean, espazio babestua behar da, kaskoa, erremontea...».

«Txakurrari ez diot zainketa berezirik ez egiten, eguneroko lana. Abuztuan lehiaketak egiteko denboraldia hasten denean, orduan banderak erakutsi, eta gainerakoak (...) Egun gehienetan joaten naiz Ttikirekin mendira edo bordara, ardien ingurura behintzat, ia egunero (...) Nik gauzak errepikatzen dizkiot, eta berak ulertu eta egin egiten ditu; sekretua errepikatzea da».

**Koteto EZKURRA**  
Doneztebeko erremontista  
ZAZPIKA, 2010.09.26

**Antonio ALUSTIZA**  
Aresoko artzaina  
BERRIA, 2010.09.29

**11 galdera labur**

**Bizkaitarra izanik, Erratzun ikasi duzu euskara?**

Bai, Bizkaian nire garaian ez nuen ikasi, orain hemen beharra sentitzen dut.

**Bizkaieraz edo nafarreraz, nola moldatzen zara hobe?**

Baztango batua da ikasten ari naizena, zer gura dozu?

**Nola tratatzen dituzte euskaldunberriak euskaldun zaharrek?**

Arras ongi, hurbiltzen ari gara.

**Solaslaguna ekimenean parte hartu duzu lehen ere. Gustora?**

Oso gustora, konpromiso ederra da as-terro.

**Zerk dauka garrantzi gehiago, solas egiteak edo lagunak?**

Solastea da helburua baina lagunak ere egiten dituzu.

**Euskara maila hobetze-**

**ko baliagarria zaizu?**

Bai, ikastea garrantzitsua da baina solasten ikasten duzu benetan. **Zer dauka Baztanek Bizkaiak ez duenik?**

Leku zabala, natura anitz.

**Eta Bizkaiak, Baztanek ez duenik?**

Itsasoa, baina Baztanek ibaiak baditu.

**Baztandarren Bilzarra edo Bilboko Aste Nagusia?**

Bata uztailen beste abuztuan. Zertarako erabaki?

**Osasuna edo Athletic?**

Bost axola!

**Bizkaia maite...**

**Nola segitzen du Benitoren kantutak?**

Atzo goizean ikusi zintudan, soineko zuriz jantzia... Arras polita baino kantuez solasten hasita, burura bertze kantu bat etortzen zait: Guztiok gara euskaldun, guztiok anaiak gara, nahiz eta hitz desberdinez...



**Ana SABANDO → Erratzuko solaslaguna**

**ZURE ETXEAREN PROIEKTUA 3.000 €<sup>tan</sup>**

Diseinu eta zerbitzu paregabek zure poltsokora egokituz. Hurbildu gure bulegora eta aukera ezberdinak erakutsiko dizkizugu.

[www.zure-etxea.com](http://www.zure-etxea.com)



T.: 948 625 403 San Esteban 8, BERA

# solaslaguna

ezaqutu



elkartu

# nahi dugu

erabili



evskaraz  
bizi



# solaslaguna

evskaldunon mundua

INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA

Solaslagunaren txokoan: 610920673 • [solaslaguna@mintzapraktika.org](mailto:solaslaguna@mintzapraktika.org)

Baztango Udaleka  
Euskara Zerbitzua  
Tel.: 948 580 006  
[euskara@baztan.es](mailto:euskara@baztan.es)

Baztango Suineki  
Euskaltegia  
Tel.: 948 452 471

Bortzirietako Euskara  
Mankomunitatea  
Tel.: 948 634 125  
[euskara@bortziriek.org](mailto:euskara@bortziriek.org)

Bortzirietako  
Euskaltegia  
Tel.: 948 637 796

Malerrekako Mankomunitateko  
Euskara Zerbitzua  
Tel.: 948 451 746  
[euskazerbitzua@malerrekako.infoelca.org](mailto:euskazerbitzua@malerrekako.infoelca.org)

Malerrekako  
Euskaltegia  
Tel.: 948 451 555



Baztango Udala



aek



KULTURA → AURTEN XXIV. ALDIZ

# Dena prest dago urriaren 24an eginen den Lurraren Egunerako

Bezperan, bertzeak bertze, Kirola Beran argazki erakusketa eskainiko da

## TTIPI-TTAPA

Mende laurdena betetzeko bidean, aurten XXIV. aldiz eginen da Lurraren Eguna. Gure Txokoa Elkarteak prest du dagoeneko egitaraua, Kultur Batzordearen laguntzarekin osatua. Urriaren 24an eginen da eta goizean 10:00etatik aitzinera Al-

tzaten eskulangileen azoka eta barazki erakusketa izanen da. 11:00etan, berriz, Bortzirietako Gazta eta Sagardo Lehiaketari ematen zaio hasiera. Bera Trikitixa taldeak ere bere emanaldia eskainiko du eta eguerdian Musika Eskolakoak eta Banda kalejiran ibiliko dira.

Aipatu, barazkiak, gaztak eta sagardo botilak Ricardo Baroja Eskolara eraman beharko direla 09:30erako.

Arratsaldean, 16:00etan Zirikaren eskutik *Zirkaos* ikuskizuna izanen da haurrentzat Altzateko Plazan. Bitarte-

an, Zahar-Etxean eskularen erakusketa eta trikitixa doinuak nagusituko dira. 17:00etan sari banaketa eta enkantea eginen dira eta Julen Zelaieta eta Manolo Arozenaren eskutik bertso saioa ere izanen da. 18:00etan Gure Txokoako dantzariak ikuskizuna eskainiko dute eta ondotik, Trikitidantz taldearekin dantzialdia izanen da.

Horrez gain, egun guztiak, trikitilariak, taloak, dastaketak eta abar izanen dira.

Euria egiten badu ekitaldiak Altzateko frontoian eta Toki Ona

kiroldagian eginen dira.

## BEZPERAN GEHIAGO

Egun haundia igandea izanagatik, Lurraren Egunaren atarian ekitaldi batzuk ohiko bihurtu dira. Hala, urriaren 23an, 15:30etik aitzinera Lizuniagako lgoera eginen da. 18:30ean, *Kirola Beran* argazki erakusketa izanen da ikusgai Labiaga Ikastolan. Eta beranduago, 19:00etan, barazkiopil lehiaketa eginen da. Trikitilariak ardurako dira bazterrak alaitzeaz.

## Jubiloteka martxan

Bortzirietako Jendar-te Zerbitzuen Mankomunitateak bulkatzen duen lana, familia eta norbere bizitza pertsonalaren bateragarritasun hitzarmenaren barne, jubiloteka zerbitzua martxan paratu dute Lagun Haundiak elkarte-an. Abenduaren 23ra bitarte izanen da, astearte eta ortziraletan, 10:00etatik 12:30era.

Egitarau berdintsua izanen dute. 10:00etatik 10:15era ongietorria; 10:15-11:00 jarduera fisikoa; 11:00-11:15 gosaria; 11:15-12:15 estimulazio kognitiboa eta 12:15-12:30, lasaitasunera buelta eta despedida.



ARGAZKIA: GURE TXOKOA ELKARTEA

## 166 parte-hartzaile XVIII. Mendi Bizikleta ibilaldian

Gure Txokoa elkarteak 18. aldiz antolatutako mendi bizikleta ibilaldian 166 txirrindularik hartu zuten parte. Horietatik gehienek, 124k, ibilbide luzea aukeratu zuten (32 km), 15ek ibilbide laburra (20 km) eta bertze 27 ume eta gazte txok 10 kilometroko ibilbide ttikia egin zuten. Saikapenik egiten ez bada ere, ibilbide luzea egiten bizkorrena Felix Arraztoa izan zen, Alberto Rodriguez eta Mattin Goikoetxearen aitzinetik. Patxi Vila txirrindulari profesionalak ere parte hartu zuen -argazkian-. Behin proba bukatuta, Kate-Bike dendak emandako bi bizikleta zozketatu ziren eta Andoni Rodriguez eta Cayo Mazizior izan ziren saridunak. Larun-Haizpek emandako bederatziko erakusketa-bonoak ere (50 eta 30 eurokoak, masajeak...) orduan zozketatu ziren.

## FLASH

### Kultur agenda

Lurraren Eguna izaten da urriko ekitaldirik aipagarriena; ez, ordea, bakarra.

### NAFARROA OINEZERA AUTOBUSA

Igande honetan, urriak 17, Atarrabian eginen den Nafarroa Oinezarako autobusa antolatu du Labiaga Ikastolako Batzordeak. Izen emateko azken eguna ortzeguna izanen da, urriak 14. DBHko ikasleek eta helduagoek 10 euro eta Haur eta Lehen Hezkuntzakoek 7 euro ordaindu beharko dute. Txartelak 09:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 16:30era eros daitezke Altzateko Ikastolan. Autobusa 08:30ean abiatuko da lamoteneatik eta 18:00etan Atarrabiatik.

### IPUIN KONTALARIA

Ixabel Millet ipuin kontalaria Herri Liburutegian izanen da urriaren 29an, 4-8 urte bitartekoentzako *Kamishibai* ipuina kontatzen. 18:00etan hasiko da saioa.

### BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAREN EGUNA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak 20 urte bete dituela-eta, egun osoko egitaraua prestatu dute urriaren 31rako. Xehetasunak aitzineko eta hurrengo aleetan eman ditugu.

FRUTUEN  
GARBIAKETA  
**E. BRANDOÑA, ILL.**  
FRUTUEN IZA MANTENTZARI

BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152  
Bidasoia, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

# LESAKA

MENDIA → BETI GAZTE ELKARTEAK ETA NAFARROAKO FEDERAZIOAK ANTOLATUA

## Nafarroako Mendi Taldeen VIII. Eguna herrian ospatuko da urriaren 24an

Goizean 15,3 kilometroko ibilbidea osatuko dute eta frontoian bazkaria izanen da

**Aitor AROTZENA**

Nafarroako Mendi Taldeen zortzigarren Eguna Lesakan ospatuko da urriaren 24an. Nafarroako Mendi eta Eskalada Kirolen Federazioak eta Beti Gazte elkarteak, Udalaren laguntzaz antolatuta, 09:00etan ibilaldia abiatuko da kiroldegitik. Hain zuzen, 15,3 kilometroko ibilbide zirkulara egingen da, Nabaz eta Auzoberri alde tik Agiñara igoz eta Zala ingurutik, Goiko Iraga eta Olatzarko presa igaroz herrira bueltatuz. On-

dotik, mendi taldeetako kideak frontoian bilduko dira, bazkari autogestionatua egiteko. Era berean, laugarren argazki lehiaketa ere egingen da egun horretan. Horretan parte hartu nahi duenak mendiko lizentzia izan beharko du eta lanak urriaren 29a baino lehen aurkeztu beharko ditu [info@mendinavarra.com](mailto:info@mendinavarra.com) helbidean. Erabakia azaroaren 8an hartuko du Zuzendaritza Batzordeak. Lehen hiru sarituek heldu den urteko lizentzia doan izanen dute eta irabazleak, gainera, FNDME txartelean argitaratua ikusiko du argazkia.

Gogoratu behar da, bertzalde, Beti Gazte elkarteak antolatutako argazki lehiaketarako lanak aurkezteko epea ere urriaren 30ean akauturiko dela.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### Garai bateko jolasak aurten ere Kulkirekin

Azkeneko urteetako ohiturari eutsiz, aurten ere herri jolasak eta jokoak musika eta besta giroarekin uztartzen dituen Kulki ikuskizuna ekarri du Tantarumairu ikastolako Guraso Elkarteak. Azken urteetan meatzarien, artzainen edo arrantzale eta marinelen jolas eta jokoak ekarri bazituzten, irailaren 28an, baserriko lanekin lotutako jokoak ekarri zituzten: asto altxatzea, toka, laia lasterketa, kokkor biltzea, orga jokoa, hankapaloak, arrautza eramatea... Garai batean beraien aitatxi-amatxiek egiten zituzten jolasak egin zituzten herriko haurrek ere. Eguzkia lagun, arratsalde ederra pasatu zuten.

ANTZERKIA → MAIRU TAILERRAK ANTOLATUA

## 'Keinu Leihoak 10' antzerki jardunaldia asteotan egingen da

**A.A.A.**

Mairu Antzerki Tailerrak, Udalaren laguntzarekin antolatutako Keinu-Leihoak 10 antzerki jardunaldiak egingen dira datozen asteotan.

Urriaren 23an, larunbatarekin, *Zortzi Begi* antzezlan eskainiko du Gilkitxaro taldeak 20:30ean Kasinoan.

Urriaren 30ean, larunbata, Azukilla taldearen *Dantza bertika-*

*la* antzezlan ikusgai izanen da 21:00etan frontoian.

Azaroaren 1ean, azkenik, Oh La La taldeak haurrentako *Amets Fabrika* antzeztuko du 18:00etan Kasinon.

EPAIKETA → PORTU ETA SARASOLARI TORTURAK

## Epaiketa dela-eta mobilizazioak egingen dira

**A.A.A.**

Igor Portu eta Mattin Sarasolaren atxiloketan parte hartu zuten 10 guardia zibil epaituko dituzte hilabete hondarrean Donostian. Herrian, kontzentrazioa eta batzarra deitua dago hilaren 25ean, 20:00etan. Hilaren 28an, 12:00etatik 13:00etara paroa deitu da herrian eta kontzentrazioa egingen da Donostian. Eta 30ean, manifestazio nazionala egingen da, 17:30ean Antiguatik abiatuta.



USATEGIAK → OSPAKIZUNAK ASTEBURU HONETAN

## Urriaren 17an ospatuko da Usategietako Igandea

Larunbateko patata tortilla txapelketak emanen dio hasiera bestari

### Irune eta Itsaso

Aitzineko urteetan bezala, patata tortilla txapelketak emanen dio hasiera Usategietako bestari. Hiruko taldeak behar dira parte hartzeko eta beraiek eramanen dituzte sua eta beharrezko osagaiak. 18:00etan emanen zaio hasiera txapelketari.

Sari banaketaren ondotik, tortillak probatzeko aukera izanen da frontoian. Lehiaketan apuntatzeko Elutsan edo Herriko ostatuan eman behar da izena urriaren 13a baino lehen. Igandean, berriz, Altxatak frontoian ostatu paratuko du eta bertan taloak eta bokatak

ere egingen dituzte, Dantzaz Taldearentzat dirua ateratzeko.

17:00etan haurrentzako Patxin eta Potxinen ikuskizuna izanen da eta 18:30etik 21:30-era Joselu Anaiak-ekin dantzaldia.

### Kultur Egunak

Euskara Batzordeak Kultur egunak antolatu ditu. Urriaren 15ean ortzirala, 20:00etan Amaia Zubiria kantari ezagunak kontzertua eskainiko du Elizan Kultur Egunei hasiera emanez.

Urriaren 22an, ortzirala, 15:00etan, txistu kontzertu didaktikoa izanen da Kultur Etxean Irungo Bandaren eskutik. Larunbatean, urriak 23, bertso-afaria egingen da 21:00etan Herriko Ostatuan. Lehengo urteetan bezala, bi bertso eskolen arteko lehia izanen da. Aurtengoan le sakarrak Leitzakoen



ARGAZKIAK: JUAN GOÑI

### Hegaztien inguruan ekitaldi arrakastatsuek

Aranzadik eta Bertizko Partzuegoak antolatuta, munduko hegaztien argazki erakusketa egon da ikusgai Kultur Etxean. Urriaren 2an, goizez, Bertizko basoan bisita gidatua izan zen eta arratsaldez txorien kabiak paratu ziren. Herriko Kultur Etxean, berriz, txoriei buruzko hitzaldia izan zen. Urriaren 3an, hegaztien anilatzea egin zuten Lizaietan. Hego-haizea zebilenez, txori bakararra harrapatu zuten: Europar bizi den txoririk ttikiena, bortz gramokoa.

kontra buruz buru ariko dira.

Kultur Egunei akabera emanen dien ekitaldiak Kultur Etxean izanen dira urriaren 29an, 19:00etan. Alde batetik hizkuntza eskubideei buruzko hitzaldia eta bertzetik, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen sorrerari buruzko bideo emankizuna eskainiko dira UEMA eta Behatokiaren eskutik.

### Bisita gidatuak Usategietan

Aurten ere, turistek Usategiak ezagutzeko aukera izanen dute bisita gidatuei esker. Aste-buru goizetan izanen dira, 09:00etan eta 11:00etan. Laura Elizagoien gidak erran duenez, eguraldiaren arabera ibilbidea Trepa-Bielaren azpitik egingen da nola ehitzen den ikusteko.

### Gimnasia ikastaroa

Azken urte hauetan bezala, gimnasia ikastaroa antolatu du Larraburua Jubilatuen Elkartek. Landagain eskolako aretoan egingen da. Urriaren 9an izan zen lehendabiziko eguna eta maiatzera arte iraunen du. Izena emateko 948 635085 telefonora (Joxepa) deitu behar da.

**F. LANCHAS**  
Akabidoladorea eta berrizatzaila  
Parket eta parket flotatzaila  
jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 756 M: 607 406 781

Lentena  
Banantzak  
Mertzatze  
Jantz-epiak  
Pulitazioak  
**katibegoria**  
Behoko plaza 10 30770 Lezoa  
T. 948 627 514

**TATANKA MOTOS**  
Salmenta | Konponketa | Osagarriak  
T. 948 638 299

**okaNe**  
HARATEGIA / URDAITEGIA  
Jose Luis B. Carriz  
Tfno/Fax: 948 630 018  
Karrilbonberr 12 • BERA

**BIDASOA**  
TELURAK - PERTSANEK  
IDOTZEAK - AUTOMATIZAZIOAK  
MOTIBAZIOAK - KOMPONKETA  
T./F. 943 61 50 60  
Auzokako Logor du Euzkoan 11  
IRULIN - BERA

# IGANTZI

UDALA → AZPIEGITURAK

## Garro aldeko erortza eta Etxexuri aldeko bidea konponduko dira urrian

Sasoi enpresa izanen da bi obrak eginen dituen

46.743,15 euroko (BEZ gabe) aurrekontua dute lanek eta Gobernuak %100ean lagunduko du. Sunbillako Sasoi enpresak eginen ditu lanak.

### TTIPI-TTAPA

Joan den urteko otsailean egindako euriteen ondorioz, erortza haundia gertatu zen Garro aldean, kalteen ondorioz, pisu berrien ondoko bidea ixteraino. Orain, berriz, Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak emandako dirulaguntzarekin konponketak eginen da.

### ETXEXURIKO BIDEA

Etxexuri aldeko bidea zabaldu eta moldatuko duena ere Sasoi izanen da. Kasu honetan, lanen aurrekontua 60.804,34 eurokoa da (BEZ kontuan hartu gabe) eta Toki Administrazio Departamentuak %60ko subentzioa emanen du.

Bi obra hauek urrian hastekoak dira.



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

### Guttiago gelditzen da 2011ko sanmigeletarako

Giro ederrean joan dira aurtengo bestak ere. Eguraldiarekin ere ezin kexatu, eguzki goxoak ere sanmigeletara bisita egin nahi izan baitu. Horren lekuko San Migel Eguneko argazki hauek.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

### Gaztarik onena Antsoneberriko Enkarnita Etxeberriarena

Ohi bezala, besten aitzineko asteburuan ere ekitaldi andana izan ziren. Biltoki Elkarteak, Bertizko Partzuergoaren eta Udalaren laguntzaz antolatutako gazta lehiaketan, erraterako, hamar gazta aurkeztu ziren eta Antsoneberriko Enkarnita Etxeberria atera zen garaille. Bigarrena Goiz Argiko Juxta Sein izan zen eta hirugarrena Argarategariko Elena Retegi. Halaxe erabaki zuen Juankar Unanua, Karmen Hita, Txema Arbelaiz, Joxepa Etxeberria eta Agustin Sainzek osatutako epaimahaiak. Artzai zakur lehiaketaren 31. edizioan, bertzalde, zortzi artzain aurkeztu ziren, euren zakurrekin. Guztien artean, Itsasuko Jean Paul Irikin eta Xintxo zakurra nagusitu ziren; Azpeitiko Matxinbentako Pello Segurola eta Artzai bigarren gelditu ziren eta Atxako Jose Antonio Arrillaga eta Linda hirugarren. Zumaiako Larrondoko Mikel Garaier eta Mendik; Oiartzungo Mikel Aizpurua eta Betik, Aiako Pello Pagadizabal eta Lantzek; Amaiurko Felix Irigoienek eta Peiok eta Oronozko Jorge Oteizak eta Azerik ere parte hartu zuten.

IKASTURTE BERRIA → IKASTAROAK

## Soinketa eta eskulan ikastaroek ikasturtea abiatu dute

Joan den astetik astearte, asteazken eta ortzegun arratsaldetan zer egina izanen da

soinketa ikastaroa eta gazteagoentzat aerobicean aritzeko aukera asteazken eta ortzegunetan izanen da. Bi egunez bina ikastaro emanen ditu Anak.

Izena ematen duten lagunen arabera, ordu-

tegia finkatuko dute. Hori bai, interesa duen horrek aski du Anarengana joatea.

### Su egur loteak eskatzeko epea

Neguari begira jarriak

gaude eta Udalak su egur loteak prestatu diturten ere. Familia bakoitzak lote bakarra eska dezake eta 30 euro kostako da. Eskaera udaletxean egin daiteke eta urrian egin beharko da.

### www.arantza.eu berritua

Badira hiru urte [www.arantza.eu](http://www.arantza.eu) Udalaren Interneteko ataria guztien eskura dagoela. Geroztik, 37.000 bisita baino gehiago izan ditu. Ba abuztu hasieratik martxan dago web orri berritua. Josetxo Urreta idazkari laguntzaileak informazio guztia prestatu eta web zaharretik berrira pasatu, eguneratu eta berria sartu du. Egin diren hobekuntzak hauek izan dira: informazioa hobeki antolatu eta testuarekin batera irudiak tartekatu; argazki gehiago sartu eta atal berriak sortu: herriko planoak, ekonomia, udal informazioa eta plenoko aktak, zergadunen egutegia, bertze web orrietako loturak...

Bertzalde, web zaharreko atalak mantendu, eguneratu eta hobetu egin dira. Beraz, badakizue, bisitatu nahi baduzue hortxe duzue aukera.

### Nerea ALTZURI

Tenorean tenoreko ekimenez ez dute hutsik egiten. Urrian sarturik, eskulan eta gimasia ikastaroak martxan dira herrian. Joan den astean abiatu ziren: astearte arratsaldez eskulanak egiteko aukera izanen da Zahar Txokon, Puy irakaslearen eskutik. Urteak daramazki herrira etortzen Puy iruritarrak. Herrian nahiz inguruan irakasle lana egiten du eta eskulanaren arlo horri buruzko jakintza zabaltzea du helburu. Betiko ikasleak izaten dira eta 17:30etik 19:30era biltzen dira asteartero.

Bertzalde, Ana Laretxearen eskutik hiru garren adinekoentzat



ARGAZKIA: XABIER ZUGARRAMURDI

### Hasi da ehiza denboraldia

Ehiztariak beren tokietan daude dagoeneko. Ehiza sasoiak hasi da eta horretarako egin beharreko prestaketa lanak akaututa uso-pasaren esperoan daude. Irudian ikusten den bezala, dena berritu ondotik, Ekaitzako ehiztariak euren txokotan izanen dira, baita Bagatxarrekoak ere.

**PAGOLA**  
EMBUTIDOS  
artesanos desde  
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

**zalain**  
JATETXEA - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
w. www.zalain.com

Tel: 948 634 179  
**ARANTZA**  
ALBERGIA

**ATERPE**

ALBERGIA - JATETXEA

**José I. Gonzalez Enguita**  
pinturas

barrukoak eta fatxadak

tel. 666 235 466

# Ecogras: sukaldeko landare-olio erabilien bilketan eta kudeaketan espezializatuak



■ Sukaldeko olio erabiliarekin biodiesela egiten du, horrela, dibertsifikazio energetikoan lagunduz ■ Ostalaritzarekin, Elikagaien industriarekin eta Administrazioarekin egiten du lan ■ Administrazioak baimendutako kudeatzailea da



Egunetik egunera garrantzitsuagoak dira gure osasuna eta inguruarena. Eta ingurumena zaintzeko beharrezkoa da ezagutzea eguneroko jarduerak zer nolako ondorioak sortzen dituzten, horrela, ingurumena zaintzarekin batera Garapen Iraunkorra ere ahalbidetuko baita. Ecogras duela 20 urte hasi zen lanean filosofia horrekin. **Lehenetarikoa** izan zen **sukaldeko olio erabilia jaso eta biodiesel bihurtzen**, animalien dentsuak egin beharrean. 20 urte baino gehiago daramagu lanean olio begetalaren bilketan eta tratamenduan. Aspaldiko kontuak dira ostalari donostiarrek Xabier Murori gisa honetako zerbitzu bat eskatu zioteneko garaia. Gaur egun, **5.000 bezero** ditu Ecograsek **Nafarroa eta Euskadiren artean**. Bezero gehienak **ostalartzaileak** diren arren, badira **partikularrak** eta **administrazio publikoak** ere. Eta bere zerbitzua, kudeaketa egoki batean, bilketan eta garbiketean dago oinarrituta, gero biodiesela ekoizteko.

Ostalarientzat, zehazki, garrantzitsua da landare-olio erabiliaren tratamendua. Lehenik, gizarteak ingurumenarekin duen sentsibilitate eta kontzientzia-erengatik, baina, baita legeak ere derrigortzen duelako hondakin horren kudeaketa egoki bat egitera. Bestalde, ekonomiaren ikuspegitik, Ecograsen zerbitzua onuragarria da, azkenean, errentagarria delako beti. Jakin behar da, olioaren kudeaketa egoki bat egitea onuragarria dela saneamendua sarearendako, izurriteak ekiditen direlako, eta baita uren kalitatea hobetzeko ere.

Ecograsek **zerbitzu pertsonalizatua** ematen die bezeroei, duen esperientzia eta logistikari esker erantzun azkarrak emanez eta haien beharrak aseaz. Izan ere, bezero-

arentzat abantailla bat da behar duen guztietan Ecograsen aholkua eskura izatea, hala, berak ez baitu pertsonalki kezkatu beharrik landare-olioen tratamenduari buruzko legediak dituen eskakizunekin.

## ECOGRASen LAN EREMUAUAK:

### Ostalaritza-Sukaldaritza

Osasun arloko betebeharrekin, ingurumenarekin eta APPCC analisien tramiteekin laguntzen ditu Ecograsen. Sukaldeko olio erabiliarekin soilik biodiesela egiten da. Gainera, Ecogras Administrazioak baimendutako kudeatzailea da, eta bezero bakoitzak dituen beharren arabera arreta berezia ematen dio bakoitzari. Adibidez,

- Olio biltzeko ontziak utziz.
- Bilketa egunak planifikatuz (aparteko egunetan ere joaten gara eskatuz gero).
- Bilketari buruzko kontratua sinatzen da.
- Administrazio tramiteetan laguntzen dute: hondakinen onarpen-dokumentua...
- Olio biltzen den aldiro, emate-agiri bat betetzen da justifikagarri modura.

### Elikagaien industria

Sukaldeko olio erabilia hartu eta kudeatzea:

- Industria bakoitza ezberdina da, horregatik, bakoitzaren arabera ematen dira soluzioak.
- Administrazio lanak bideratzen laguntzen dute: hondakinen onarpen-agiria...
- Ontzi aproposak ematen dituzte, beharren arabera: 1000 litroko GRGak, bidioiak...
- Seriotasuna: olio jasotzeko kontratua eta emate-agiri berezia jasotze bakoitzarako, ISO 14001 kudeaketarako baliagarria, APPCC-ak, administrazio ikuskeraren arabera...
- Jasotako olio-hondakinekin soilik biodiesela egiten da.

Hondakin arriskutsuak:

- Hondakin arriskutsuen garraioaz arduratzen dira eta horretarako behar diren tramiteetan laguntzen dute.

## Administrazioa

Hiri Hondakinen kudeaketa udal administrazioen egitekoa da. Zeregin horretan, Ecograsek bere laguntza eskaintzen dio administrazio publikoari honako lan hauetan:

- Sukaldeko olio erabilia bildu eta kudeatzen
- Etxeko hondakin arriskutsuak biltzen

Soluzio partikularrak:

- Garbigune mugikorak
- Edukiontzia
- Promozio artikulua; onilak edo enbuetak, ontziak, kanpainak...



## ECOGRAS ETA NATURA

Ecograsek behar bati ematen dio erantzuna: egunero sortzen ditugun

hondakinei tratamendu egokia emateari. Hondakin hauei tratamendu egokia emateko soluziorik egokiena, sortzen diren toki berean bereiztea da. Ecogras baimendutako kudeatzaile bihurtzen da administrazioarendako eta, horrela, olio erabiliak garraiatu eta kudeatzeaz gain, hondakin arriskutsuak kudeatzaile egokiari eramaten dizkio, bidenabar, naturaren kutsadura ekidinez. Jasotako olioarekin biodiesela egiten da, petrolioan aurreztuz eta **dibertsifikazio energetikoan** lagunduz. Horregatik, **Ecograsek bere aletxoak aporteratu du Garapen Iraunkorraren alde.**



GREBA → ESKUALDEAN ERANTZUNA

# UGT eta CCOOk deitutako greba orokorrak segida eskasa izan du

Lesakako Arcelor-Mittalen langileen %5-10ean eragin du, baina ez produkzioan

irailaren 29an deitutako greba orokorrak segida eskasa izan zuen eskualdean.

Erraterako, lantegi handienean, Lesakako Arcelor-Mittalen, goizeko produkzio-txandan eta bulegoetako txanda normalean, langileen %5 eta %10ak egin zuen greba, langileen batzordetik jakinarazi dutenez. Gainerakoan, lan-jarduerak normaltasunez segitu zuela eta



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

UGTko ordezkariak elkarretaratzea egin zuten Doneztebeko Enplegu Bulegoaren aitzinean.

grebak ez zuela produkzioan eraginik izan jakinarazi zuten.

Lesakako Alkaiaga, Berako Zalain, Doneztebeko Aparan eta bertze industrialdeetan ere kasik ez zen somatu grebaren eraginik.

Hori bai, UGT sindikatuak deituta, hamar

minutuko elkarretaratzea egin zen Doneztebeko Enplegu Bulegoaren aitzinean, negoziatzio kolektiboaren aldeko pankarta batekin. Patxi Altzu UGTko ordezkariak aipatu zuenez, «pena da Europa osoan erreibindikazioak egiten ari garen egun

hauetan, sindikatu batzuk bat ez egitea grebarekin. Herritar guzien eskubideek aldeko borrokan ari gara eta espero dugu lan erreforma ez gauzatzea. Dena den, zerbait lortzen bada, ez da gure eskualdearen elkartasunarengatik izanen».

## TTIPI-TTAPA

Espainiako Gobernuak ezarri gogo duen lan-erreformaren kontra protesta egiteko UGT eta CCOO sindikatuek

**URRIAREN 15EAN, ORTZIRALA**  
20:00ETAN ELIZAN  
**KANTALDIA**  
**AMAIA ZUBIRIA**

**URRIAREN 22AN, ORTZIRALA**  
15:00ETAN KULTUR ETXEAN  
**TXISTU KONTZERTU**  
**DIDAKTIKOA**  
**IRUNGO BANDA**

**URRIAREN 23AN, LARUNBATA**  
21:00ETAN HERRIKO OSTATUAN  
**BERTSO AFARIA**  
**LESAKA VS LEITZA**  
LUZE, ZILI ETA IÑIGO (LEITZA)  
TERRE, IOAR ETA SILVEIRA (LESAKA)  
GAI JARTZAILER: ALAITZ REKONDO

**URRIAREN 29AN, ORTZIRALA**  
19:00ETAN KULTUR ETXEAN  
**HIZLARIA**  
**GARBIÑE PETRIATI**  
**BEHATOKIKO ZUZENDARIA**  
HIZKUNTZA ESKUBIDEEI  
BURUZKO  
HITZALDIA  
ONDOREN  
MANKOMUNITATEAREN SORREARAI  
BURUZKO BIDEO EMANKIZUNA

**ETXALARKO**  
**KULTUR EGUNAK**  
URRIAREN 15EAN, 22AN, 23AN ETA 29AN  
**2010**



**NAFAR MENDI**  
merkatalgunea  
Arraioz | Baztan-Bidasoa



### OKINDEGIA

Ogi egin berriak.  
Klase guzietakoak eta gure  
labean eginak



### ARRAINDEGIA

Arrain freskoetan aukera  
zabala, prezio eta kalitate  
ezin hobean

Ongi etorri Baztan, Bertizarana, Malerreka, Bortziriak, Leitzaldea N



**EGUNEKO  
MENUA**

**8,50€**



**GURE  
GASOILA**

**0,99€\***  
litroa

\* Baiatzotasuna: 2010/10/28a bitarte

**NAFAR MENDI / HIPERSIMPLY**

## HIPERMERKATUA

edantokia pintxoekin, jatetxea, eta gainera:

**Lekuko GASOLINARIK MERKEENAK!**

**AUTO GARBITZAILEA**



### FRUTA ETA BARAZKIAK

Fruta eta barazkietan  
kalitate estra.

Prezio harrigarriak!



### HARATEGIA

Haragi xamurra eta  
kalitate bikainekoa.

Nafarroako Aretzea

**NAFAR MENDI ZUEN ZAI DAGO BESOAK ZABALIK**



# SUNBILLA

ERREPIDEA → PROTESTA GEHIAGO ORAINGOZ EZ

## Udalak bertan behera utzi du errepideko hileroko mozketak kanpaina

Errepide Plan Berrian alternatibaren bat sartzen duten ikusi arte ez dute mobilizazioekin segituko

### Itxaso ARRIETA

Herrira sartzeko eta ateratzeko bidegurutze duina eskatuz azken lau hilabeteotan egin den mobilizazio kanpaina bertan behera utzi du Udalak. Hala jakinarazi dute Paco Errandonea alkateak sinatuta prentsara bidali duten idatzian. Urriaren 7rako aurreikusia zen hurrengo errepide mozketak, baina «azkeneko aldatketen aitzinean» kanpaina bertan behera uztea erabaki dute, «Errepide Plan berrian alternatiba berriren bat sartzen duten ikusi arte».

Doneztebeko IAT egoitzaren inaugurazioan Miguel Sanzekin bil-

### ITXAROPENA

Bidegurutzean aurreikusia zegoen itxaroteko erdiko karrilaren asmoa baztertu egin du Nafarroako Gobernuak, eta Errepide Plan Berrian alternatibaren bat sartu arte ez dute protestarik egingen herritarrek.

du zirenetik gauzak aldatu egin dira. Bertzeakbertze, bidegurutzean aurreikusia zegoen itxaroteko erdiko karrila egiteko asmoa baztertu egin du Herri Lan Departamentuak.

### Trafiko istripua

Albiste iluna utzi zigan errepideak joan den astean: 37 urteko Iñaki Aizkorbe Sanzberro hil baitzen Sunbilla eta Doneztebe artean izandako istripuan. Iruñeara bidetan zihoala, kontrako norantzan heldu zen kamioiak sunbildararen autoa jo zuen.



ARGAZKIAK: ITXASO ARRIETA

### Bidasoko ur hondakinen tratamendua

Bidasoa ibaiko Sunbillako zatian joan den astean hasi ziren ur hondakinak tratatzeko lanekin. Nilsa enpresa publikoa da obraren arduraduna eta honek Arian enpresari esleitu dizkio lanak, zazpi hilabetez egiteko. Argazkiei dagokienean, goikoa ur depuraduraren zentrala paratuko duten tokikoa da eta bertean hodiak pasetzen ageri dira.

## ARTEKARI TALDEA

**ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA**

<ul style="list-style-type: none"> <li>☞ Langile autonomoak</li> <li>☞ Nekazariek eta mendi langileak</li> <li>☞ Nominak eta Aseguro Sozialak</li> <li>☞ Lan-Kontratarako laguntzak</li> <li>☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>☞ Diru-laguntza ezberdinak</li> <li>☞ Kontabilitateak</li> <li>☞ IVA eta IRPF</li> <li>☞ Errenta aitortpenak</li> <li>☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak</li> <li>☞ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak</li> </ul>
--	---

artekari@artekari.com

**LESAKA:** Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
**BURLATA:** La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

### Kimetz Bolardenda

Dietetika eta nutriçia - Kosmetika naturala - Dietetikak  
 Dieta personalizatua - Naturapatia - Aplanapia  
 Masajak lertzeologia, kiromasajak, osteopatia, terapeutikoa...  
 Bioenergetika - Bach Loreak - Medikuntza tematikoa - ...

(Luzaroan) - 3. Defak (Luzaroan) | Tel: 948 633 673 | kimetzbolardenda@kimetz.com

## Alberto RETEGI

abokatuak

abokatuak

© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

UDALA → LANPOSTU DEIALDIAK

## Haur Eskolarako langile euskaldunak kontratatzeke deialdia egin du Udalak

Bi haur hezitzaile, sukaldaria, jantokiko laguntzailea eta garbitzailea hartu nahi dira

### TTIPI-TTAPA

0-3 urte bitartekoa den Askin Haur Eskolan hainbat langile kontratatu nahi ditu Udalak eta horretarako deialdiak egin ditu. Zehazki sukaldaria, bi haur hezitzaile, jantokiko laguntzailea eta garbitzailea dira hartu nahi direnak. Denak ere oposizio bidez aukeratu dira.

### SUKALDARIA

Hasiera batean, sukaldariak bortz orduko lanaldia izanen du, baina hori aldatzen ahal izanen da. Jatekoa prestatzea, hornitzaileei lehen-gaiak erostea, sukaldaria eta hango tresna eta makinak garbitzea eta Haur Eskolako bertze langileekin elkarlanean aritzea izanen dira egiteko nagusiak. Lan-kontratu finkoa eginen zaio eta eskaerak aurkezteko epea irailaren 30etik hasita 30 egun naturalen buruan akituko da, hilabete honen hondarrean, beraz.

### HAUR HEZITZAILEAK

Haur Eskolarako bi haur hezitzaile kontratatu nahi ditu Udalak, bat lanaldi osoarekin eta bertzea laburrarekin (sei ordu). Dena den, zerbitzuaren beharren arabera izanen litzateke hori eta alde horretatik, baliteke matrikulazioaren arabera kontratazio gehiago egitea. Haur Hezkuntzako titulua edo Haur Hezkuntzako Goi Mailako teknikariaren titulua eskatuko dira lanpostu hauetarako.

### GARBITZAILEA ETA JANTOKIKO LAGUNTZAILEA

Bortz orduko lanaldia eskainiz garbitzailearen lanpostua ere bete nahi du Udalak. Gelak, instalazioak, patioak, altzariak edota gainerako tresnak garbitzea izanen da bere lana, baina horrekin batera, ardurari lotutako bertzelako zereginak ere izan ditzake, Udalak edo Haur Eskolako ardura-dunek hala eskatzen badiote.

Jantokiko laguntzaileak, berriz, ordu bat eta erdiko lanaldia izanen luke, nahiz eta hori ere alda daitekeen. Jantokia artatzea izanen da bere egitekoa.

Hezitzaile, garbitzaile eta jantokiko lagun-

### DATUA

# 5

LANPOSTU bete nahi dira Haur Eskolan.

tzaile lanposturako aurkezteko epea urriaren 5etik hasita 30 egun naturalen buruan akituko da, hau da, azaro hasieran.

### EUSKALDUNA IZATEA EZINBERTZEKOAK

Euskalduna izatea ezinbertzekoa izanen da lanpostu guztietan, eta horretarako, goi edo erdi mailako gaitasun agiria eskatuko zaie. Ez bada, euskara maila neurtezko proba eginen da.

Bertzalde, probak egin ondotik aukeratu denekin hiru hilabete probaldia eginen da

eta lanerako gai ez bada, kontratua desegiteko ahalmena izanen du Udalak.

### OPOSIZIOAK

2011ko urtarrilean hasiko dira azterketak eta lehenbizikoa euskara maila neurtezko ahozko proba izanen da. Bigarren eta hirugarren probak teorikoak zein praktikoak izanen dira eta laugarren ariketa, azkenik, epaimahaikoekin egindako elkarrizketa bat izanen da.

Hautapen prozesua akitzean, berdinketa gertatzen bada, eskarmendu profesional haundia goa izatea baloratuko da. Horiek izanen dira Udalak lanpostuetarako aukeratu dituenak.

### EPAIMAHAIA

Probak egiterakoan hauek osatuko dute epaimahaia: mahaiburu Miguel San Migel al-

katea edo hark izendatzen duena izanen da eta ordezkaria udal zinegotzi bat. Mahaikideak Elizondoko Haur Eskolako zuzendaria, Atarrabiako Haur Eskolako zuzendaria, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Doneztebeko Orientazio Zerbitzuko teknikaria eta udal langileen ordezkari bat izanen dira. Mahaian baina botorako eskubiderik gabe, idazkaria ere egonen da.

### Artxiboa digitalizatua

XVII. mendetik gaur egunera bitarte Elizako tomo eta jaiotza, heriotza eta ezkontzen orrialdeak digitalizatu egin dira eta horiek kontsultatzeko aukera dute Elizara hurbiltzen direnek. Ordenagailua paratu dute horretarako. Halere, aitzinetik hartu behar da hitzordua (948 450228).



ARTXIBOKO ARGAZKIA

### Ferietako postuak

Azaroaren 19an eginen diren Ferietan postua paratu nahi dutenei, bezperan, hau da, azaroaren 18an, 16:00etatik aitzinera, banatuko zaizkie postuak. Harat joatea ezinbertzekoa izanen da. Metro linealeko 11,96 euro kostako da.

ORAIN  
asteburutan ere  
irekia!

Amezia, 7  
Tlxoa: 948 450 271  
DNEZTEBE

# ZUBIETA

EUSKARA → OSPAKIZUNAK

## Gazteek egindako lanari esker giro onean joan da Euskararen Eguna

Bertso bazkarian 70 lagun elkartu dira

### Fermin ETXEKOLONEA

Giro eta eguraldi ederrarekin joan ziren Euskararen Eguneke ekitaldiak. Ostiralean zein larunbatean dena iragarri bezala atera zen, baina aurretik dena ongi prestatua zegoelako. Alde horretatik, aipatzekoa da gazteek antolatuntzan egindako lana. Ostiraleko pintxo lehiaketako onena Eva Elizalderena izan zen eta bigarren saria Dominixeneko Maribehek eskuratu zuen. Musean, berriz, Urko Loiar eta Mikel Indakoetxea izan ziren txapeldunak. Domintxeneko Joseba eta Oinatz azpitxapeldun gelditu ziren.

Larunbatean egun osoan nabaritu zen mugimendua. Goizeko erakusketan, hamar bat artisau atera ziren kalera eta denetarik ikusi zen: zur-

gin-lanak, oihalarekin egindakoak, barazkiak, taloak, ogia, pultserak... 15-20 trikitilari eta panderojolek ere ederki alaitu zituzten bazterrak eta denak herritarrek.

18 joaldun helduk eta gaztetxoagoak diren beste batzuek ere euren harat-honatak egin zituzten eta emakumezkoen herri kirol saioa ere ederra izan zen. Ikuskituzun polita eta parekatua eskaini zuten.

Sebastian Lizaso eta Joxe Agirrerekin egindako bertso bazkariak, bestalde, 70 lagun inguru elkartu zituen. Bazkalondoan trikitilarietako kalejira ere egin zen, eta merienda plazan.

Magra lehiaketa ere berexia izan zen. Bole-torik gabe, pisua asmatzea baitzen kontua. Saltsa polita sortu zen eta Lutxi Llanos izan zen gehien hurbildu zena, benetako pisutik bost gramora, hain zuzen.

Gaueko dantzaldian eta kontzertuetan, herritarrez gain, kanpotik ere bildu zen jendea.



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Egun osoan izan ziren ekitaldiek eta herritar guztiak izan zuten gozatzeko aukera.

### Dubaren zain

Aldizkari hau argitaratzen denerako, sortzez Saharakoa den bai-

na ikasturtea herrian patsatzen duen Duba hermen izatea espero dugu. Ikasturte berria ha-

sia da, baina paper kontu batzuk tarteko, badi-rudi atzeratu egin dela bere etorrera.

GIZARTEA → EHIZA SASOIA

## Basurde ehiztariek hasiera ona eman diote denboraldiari

Hainbat basurde harrapatu dira

### Arkaitz MINDEGIA

Urrian sartuak garen honetan, herriko ehiztariek prest dituzte postuak, eskopetak eta go-goa ere bai, goizean jeiki eta zerura begiratze-ko. Dagoeneko badituzte basurde andana botatuak inguruko mendietan. Gustura biltzen dira goizero ehizara joateko, eta bueltan pozik etortzen dira basurdea

edo basurdeak ekarriz. Ea zorte berdina duten usoekin ere. Usoak patsatzen badira, beraiek eta herritarrek ere bandak ikusiz gozatuko dugu.

### Dantzariak eta joaldunak Orreagan

Joan den urtean bezala, aurten ere, Orreaga-Zubiri lasterketan parte hartu dute Ituren go joaldun eta dantzariak. Lasterketa aitzinetik, lasterkari guzietan Aurrekua eskaini zieten dantzariak, eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Argazkiko bi basurde hauek azken asteetan ehiztariek gure mendietan botatakoak dira.

korrikalariak lasterka ari ziren bitartean, joaldunek Zubiriko karrikak alaitu zituzten. Dena bukatzean, helmugara ailegatu ziren lehenengo korrikalariarentzat ere astindu zituzten joareak. Dantzariak erakustaldia ere eskaini zieten irabazleei Aurrekua dantzatzeaz gain.

### Herri kirolak

Azken asteburuotan bi herritarrek bi txapelketetan parte hartu dute. Alde batetik, Ander Erasunek Nafarroako Maila Nagusiko Aizkora Txapelketako kanporaketan jokatu zuen. Ezzuen zortetik izan eta ez zen finalerako sailkatu, baina ez du honekin akituko ur-

tea. Izanen ditu erakustaldia, baina azaroaren 19an Donezteben jokatuko den Euskadiko Bigarren Mailako finala izanen du buruan.

Indartsu dagoen beste Joakin Aioroa da. Euskadiko Ingude Altzate Txapelketan guttigatik bigarren izan baita. Xehetasunak kiroleetan.



## SANTESTEBAN Tailerrak

Santesteban Tailerrak - Renault • Leitzako errep. DONEZTEBE • T. 948 450 282 F. 948 450 857 • doneztebe@red.renault.es

 <p><b>SCENIC III DYNAMIQUE</b> 1.5 DCI 105 CV KM 0</p>	 <p><b>MEGANE III DYNAMIQUE</b> 1.5 DCI 105 CV KM 0</p>	 <p><b>MEGANE GRAND TOUR BUSSINESS</b> 1.5 DCI 105 CV 2007koa • 65.000 km</p>	 <p><b>MEGANE SEDAN DYNAMIQUE</b> 1.5 DCI 105 CV 2007koa • 40.000 km</p>
 <p><b>CLIO III EXPRESSION</b> 1.5 DCI 85 CV 2010ekoa • 6.000 km</p>	 <p><b>KANGOO AUTHENTIQUE</b> 1.5 DCI 70 CV 2008koa • 74.000 km</p>	 <p><b>TRAFFIC COMBI 6</b> 1.9 DCI 100CV 2007koa • 44.000 km</p>	 <p><b>KANGOO II EXPRESSION</b> 1.5 DCI 105 CV 2008koa • 24.000 km</p>

**DONEZTEBEKO RENAULT-en KOTXE IA BERRIETAN SEKULAKO ESKAINTZAK**

# ELGORRIAGA

OSPAKIZUNAK → ONDDO ETA ZIZEN KOFRADIA

## Kide berriak izendatu dituzte Onddo eta Zizen Kofradiaren Egunean

Miriam Diaz Aroca, Begoña Sanzberro, Xavier Gabriel eta Jose M<sup>a</sup> Aracama dira kofrade berriak

### TTIPI-TTAPA

Nahiz eta ekitaldiak bezperatik izan, Nafarroako Onddo eta Zizen Kofradiak igandearekin egin zuen urteko hitzordu nagusia, urriaren 3an.

Goizean goiz, gonbidatutako kofradietako kideei harrera egin zu-

tzaien: Kantauriko Antxoaren Kofradia, Donostiako Antxoaren Kofradia, Erronkariko Gaztaren Kofradia, Tolosako Babarrunaren Kofradia, Bidasoko Izokinaren Kofradia, Beasaingo Odolkiaren Kofradia, Nafarroako Olioaren Kofradia, Nafarroako Ardoaren Kofradia, Nafarroako Zainzuriaren Kofradia edo Guijuelo Urdaiazpikoaren Kofradiak hartu zuten parte.

Ohi bezala, kofradiako kide berriak ere izendatu zituzten: ekitaldira ailegatu ezin izan zu-



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Goiko argazkian kofradeak, eta behekoetan onddoak prestatzen.


en Miriam Diaz Aroca antzezle eta aurkezle espainiarra, Begoña Sanzberro Landa Garapen eta Ingurumen kontseilaria, Jose Maria Aracama Sodenako zuzendaria nagusia eta Xavier Gabriel, Lleidako Bruixa D'Or loteria administrazioko nagusia. Loteria saltzailerik handiena izateaz gain, espaziora turismo-bidaian joan den estatuko lehenbizikoa ere izanen omen da,

eta «Elgorriagako onddoa espaziora eramainen duela» hitz eman zuen. Kofradiaren aginte-makila hartu zuen Elisabet Marinek hildako kofradeak gogoan izan zituen, bereziki Salvador Arozarena, Juanito Mariezkurrena eta Francisco Martin Aiestaran.

### 100 KILO ONDDO

Gainerakoan, Zubietako joaldunak eta txaranga, aizkoralariak eta

harri-jasotzaileak, eta nola ez, onddo dastaketa izan ziren. Aurten goan ere ehun bat kilo prestatu zituzten. Guijuelo urdaiazpikoa ere zozketatu zen, Xavier Gabrielelek eskainia eta Begoña Sanzberro kontseilariari tokatu zitzaion. Kofradietako kideek zirkuito-termala ere egin zuten eta igerileku termalean 25 erlaxio ibilbideren zozketa ere egin zen.



# ELGORRIAGA

BALNEARIO - BAINUETXE

## Animatu termalismo aktiboa probatzera

### IGERILEKU TERMALAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA

**Bakarrik 10€ pertsonako** (eskualdean bizi direnentzat)

**Igande arratsaldeetatik ostegun arratsaldeetara (bakarrik arratsaldeetan)**

**Eskaintzaren azken eguna: urriak 31**

**BALDINTZAK** ERRESERBA EGIN BEHAR DA. Ezin zaie bertze eskaintza edo promozioei gehitu

Errotaldea z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa) Tel. 948 45 60 45  
www.balnearioelgorriaga.com



**BESTAK → AKITU DIRA**

## Giro polita izan da sanmigeletan

Asteburuan eguraldi txarra eta astez ona izan dira

**Joseba URROTZ**

Ematen du herriko bestak gero eta gehiago herrikoentzat direla. Alde guzietan entzuten da herrietako bestetara gero eta jende guttiago hurbiltzen dela, eta gainera ortziral eta larunbatean eguraldi kaxkarra izan genuen Urrozzen. Hortaz, herritarrez gain, hagitz jende gutti etorri zen kanpotik gaueko dantzaldi eta parrandara. Hala ere, bi egunetan, hurrengo goizean

eguzkia ongi altxatu arte egon zenik ere izan zen.

Gainerako egunetan, aldiz, eguraldi bikaina izan genuen, ezin hobe, eta ekitaldi guzietan jendeak ez zuen hutsik egin eta giro ederrean parte hartu zuen. Aizkora apostua ikusten, herri bazkarian –sonbrilla eta guzti egin zen–, gazteen arteko herri-kiroletan, haur jokoetan... Horiek guztiak jendea mugitu zuten.

Tiropitxonekoak ere etorri ziren eta salmenta polita egin omen zuten, Andoni Egaña eta Jexux Mari Irazu bertsolariak ere aritu baitziren txotxei tiroka.



ARGAZKIAK: JOSEBA URROTZ

Haur, gazte zein helduek gozatu dute bestetan.

Ekarritako petardo guztiak ere saldu omen zituzten, ez zen giro as-

telehen gauean, zirti eta zarta. Kanpotar gutti etorri

bazen ere, herritarrak elkartzea eta ongi pasatzea ez da gutti!

edredoi fundak  
albornozak  
edredoi nordikoak  
ohe estalkiak  
maindiak  
mantelak  
kuxinak  
toailak

**1951tik**  
**Casa Cambra**  
**lentzeria-etxea**  
Tafalla, 13 • IRUÑEA 948 230 634

**Edredoi fundak eta nordikoetan espezializatuak**

# LEGASA

ERLIJIOA → ETB HERRIAN

## Urriko hiru asteburutan meza grabatzero etorriko da Euskal Telebista

Mezetan Legasako eta Doneztebeko abesbatzek kantatuko dute

neztebeko Mendi abesbatzaren txanda izanen da.

### Ur kontagailuaren irakurketarako data berria

Aurreko TTIPI-TTAPAren alean aipatu bezala, hainbat etxetan ur kontagailuak irakurri gabe gelditu zen eta ur kontsumoa apuntatu eta Kontzejuko buzoian irailaren 30a baino lehen uzteko eskatu zen. Orain, ordea, epea luzatzea erabaki da. Ortziral hau, urriak 15, izanen da azken eguna.

### TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko hainbat herritan egiten duena, Legasan eginen du aldi honetan Euskal Telebistak. Legasara etorriko baita urriko hiru asteburutan meza grabatzera. Lehenengo bi asteburutan Legasako abesbatzak kantatuko du eta hirugarrenean, berriz, Do-



UTZITAKO ARGAZKIA

### Lau basurde ehizatu dituzte

Hasi da ehiza denboraldia eta lehenbiziko aleak ere harrapatzen hasi dira ehiztariak. Joan diren asteburu hauetako batean, adibidez, lau basurde ehizatu zituzten herriko ehiztariak herriko mendietan.



### 120 lagun Bidasoko bizikleta martxan

«Pozik» gelditu da Bertizko Turismo Partzuegoa Bidasoako mendi bizikleta martxaren hirugarren edizioak izandako erantzunarekin. 120 lagunek parte hartu zuten Behobia eta Bertiz arteko 45 kilometro dituen ibilbide luzearen eta Sunbilla eta Bertiz arteko 12 kilometro dituen ibilbide laburraren artean.

**EUROPA HEGO-MENDEBALDEKO PYMEetan IKTak ZABALTZEKO SAREA**

Baduzu enpresa bat eta lehiakortasunean hobetu nahi duzu teknologia berriei esker?

**cederna garalur** **CYBERSUDOE**

**Aukeratu interesgarrien duzun tematika:**

- MEKATZARITZA ELEKTRONIKOA
- eTURISMOA
- ON-LINE ADMINISTRAZIOA
- IKTn ETA GARRAIO-LOGISTIKA
- IKTn ETA MEKATZARITZAKO ELIKAGAIAK
- IKTn ETA DOKUMENTUEN DIGITALIZAZIOA
- IKTn ETA GIZA BALABIDIAK
- IKTn ETA KIDEAKETA
- ERKONJURAREN ZABANTZA ETA INFORMAZIOA

Honako hau eskaintzen dizugu:

- Zure lantegiaren diagnostikoa egitea
- Tutoreak norberarendako
- Gidaliburuak

**www.cybersudoe.eu**

Interesgarria egiten bazaizu, deitu:  
**CEDERNA GARALUR**  
Enpresak eta Ekintzaileak. Tel. 696 539 810  
ePosta: igastaminza@cederna.es

IKT: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak

GIZARTEA → HERIOTZA

## Tristura haundia sortu du herrian Joakin Martinen heriotzak

Herritarrek  
diruz lagundu  
diote familiari



### Fernando ETXEBERRIA

Irailaren 27an hil zen Joakin Martin, bat-batean, etxetik ateratzekoan bihotzeko baten ondorioz. Gainera, egun horretan betetzekoak zituenez 64 urte eta hurrengo egunean Mankomunitatean lanean hastea zena.

Bere heriotzak tristura eragin du herritarren artean eta familiaren egoera ekonomiko txarra ikusita, laguntza ematea erabaki dute. Ia herritar guztiek lagundu dute hiletako gastuei au-

rre egiten, 2.336,52 euroko gastua izan baita.


Lerro hauen bidez familiak eskerrak eman nahi izan dizkiei babesa eman dieten herritarrei, baita iratxe ehorztxeko arduradunei ere. Aldizkari honetako Irakurleak Mintzo sailean Joakin seme Jokinek eginiko idatzia irakur daiteke, 8. orrialdean.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

### Noble-Goikoetxea familiaren eta Mindegiatarren bazkariak

Berez Ezkurakoak den baina Gipuzkoa aldean bizi den Noble-Goikoetxea familiak bazkaria egin zuen urriaren 2an Barranka Ostatuan. Bildu ziren lehen aldian izan zen, baina adierazi zuten, urtero elkartzen saiatuko omen dira. Bi haramunean, berriz, Mindegiatarren txanda izan zen, Miel Mindegia aizkolaria tartean zela. Hiru anai herrian bizi dira, baina gainerakoek beste herrietara joan behar izan zuten: Zubieta, Beintza-Labaien, Oronoz-Mugairi... Urteko hitzorduarekin segitzeko asmoa dute hauek ere. Gisa honetako bilkurak oso positiboak dira txikitako urte haiek gogoratzeko, gaur egungo kontuez mintzatzeko eta bide batez, familiako harremanak sendotzeko.



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza 

Paotxa Eraikina • Gorostiaga, z/g • Anaka Industrialdea  
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN  
c.andueza@euskalnet.net

## GIZARTEA

TURISMOA → LANDETXE SOLIDARIOAK

# Jende solidarioari deskontuak egiten dizkioten landetxeak ere badira

Landetxe solidarioak deitzen dira eta eskualdean bi daude: Zugarramurdin eta Etxalarren

## TTIPI-TTAPA

Bisitarietako lo egiteko eta jateko tokia eskaintzen dieten landetxeak dira. Ez, ordea, bertze gainerakoak bezalakoak; landetxe solidarioak baitira. Gobernu Kanpoko Erakundeekin eta irabazi asmorik gabeko entitateekin kolaboratzeak eta jende solidarioari beharpenak egiteak bereizten ditu gainerakoetatik. Eta duela urtebete inguru elkar batean bildu ziren: Landetxe Solidarioen Elkarteak, alegia. Castellongo (Herralde Katalanak) landetxe baten jabe bat izan ekimenaren bultzatzailea. Badirudi, bera lehena gotik hasia zela jendea-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Gure eskualdean bi dira ekimen honekin bat egin duten landetxeak: Zugarramurdin bat eta Etxalarren bertzea. Argazkian Zugarramurdi ageri da.

ren solidaritatea eskertzen.

Elkartea sortu zenetik urte batera, estatu espainiarrean 67, Hego Euskal Herrian sei eta gure eskualdean bi dira gisa honetara lan egiten dutenak: Zugarramurdiko Haitzetxea eta Etxalarako Saroiberrikoborda.

## BALDINTZAK

Bi dira landa turismoko ekimen honetan

parte hartzeko eskatzen diren baldintzak edo aukerak. Alde batetik, landetxeko jabeek %10eko deskontua egin behar diete organu edo odol-emaileei, GKE Gobernu Kanpoko Erakundeekin kide direnei, gizarte boluntarioei... Bertzela, egonaldiaren prezioetik %15 GKEtara edo elkar batera bideratzeko eskubidea izanen du bezeroak, hala nahi izanez

gero. Ordaindu beharrekotik deskontatu egiten litzateke aipatu zatia.

Bezeroek, beraz, bi eskaintza hauetako bat aukera dezakete. Guttieneko bi baldintza hauetatik aitzinera, landetxe bakoitzak erabakiko du noraino izan solidario.

Zugarramurdiko Haitzetxean, adibidez, odol-emaileei eta Gurutzeko Gorriko langile eta

## EZAUGARRIAK

Landetxeko jabeek %10eko deskontua egin behar diete organu edo odol-emaileei, GKE Gobernu Kanpoko Erakundeekin kide direnei... Bertzela, egonaldiaren prezioetik %15 GKEtara edo elkar batera bideratu behar dute, bezeroak hala nahi badu. Bi baldintza horietako bat aukera daiteke.

kolaboratzaileei %10eko deskontua egiten diete, eta Gobernu Kanpoko Erakunderen bat diruz laguntzeagatik %15eko beherapena izanen dute bisitariak. Eta Etxalarako Saroiberrikobordan, Gobernu Kanpoko Erakundeetara %15 bideratzeko aukera eskaintzen da.

Informazio gehiago jautzeko [www.casasuralesolidarias.com](http://www.casasuralesolidarias.com)-en.

**TNC PUERTAS NUEVA CASTILLA**

**AGENTEA ANTON LEGORBURU GOÑI**

Ate berriak kolokatu eta reparazio lanak

Mugikorra: 670 497 485 • Tailerra eta faxa: 943 630 774

**LIZUN**  
GAZTANDEGIA

Sunbilla - Tel: 948 450 862

**Gure Haragia**  
Nuestra Carne



*Neurrira egindako leihoak  
Diseinu eta modelo ezberdinak  
Banakako soluzioak  
Isolamendu termiko eta akustikoak  
Energia aurrezpenak*

**Ordoki industrialdea • ARIZKUN**  
**Tel. 948 453 259 • Fax. 948 453 423**  
**betikopvc@betikopvc.com**  
**www.betikopvc.com**

## PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa salmenta eta instalazioa



**OBRA BERRIETAN ETA BERRIKUNTZETAN ESPEZIALIZATUAK**

# GOIZUETA

## TURISMOA

# Turismo Plana garatzeko taldea osatu da herrian

Bizibiziki enpresarekin elkarlanean turismo aktiboa garatu nahi da

### Esteban AROTZENA

Bizibiziki enpresa gipuzkoarrek teknikariek eta zenbait herritarrek osatutako taldeak bi bileran egin ditu dagoeneko herrirako Turismo Plan Estrategikoa garatu asmoz. Hiruzpalau hilabete iraunen duen elkarlan honen ondoren, plana erredaktatzeari ekinen diote teknikariek aipatutako bileretan jasotako ideiak eta ekarpenak erabiliz horretarako.

Lehenengo uztailaren 28an aurkeztu zuten Udalak Bizibiziki enpresa pleno aretoan elkartutako 40 herritarrei. Erakunde guzietako ordezkariak eta merkatariek osatzen zuten He-

rriko Etxeak gonbidatutako talde hau. Iñaki eta Ekaitzek, Bizibiziko teknikariek, esandakoaren arabera, turismoa aktiboaren kontzeptuan oinarritutako plana proposatuko dute Goizuetarako, kultura, natura eta abentura lotuko dituen, alegia.

Turismo Planaren barrenean, azpiegiturak nahitaezkoak dira, jakina. Heldu den udaberriko irekita egonen omen da Udalak estrategikotzat jotzen duen aterpetxe ederra. Horixe izan da, hain zuzen, plana egiten hasteko arrazoietakoa bat. Bi administrazioek, Nafarroako Gobernuak eta Udalak, egindako esfortzu ekonomikoari errendimendua atera nahi zaio aterpetxera jendea erakartziz. Horrek herria berpizten ere lagunduko duelakoan daude Herriko Etxean.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Turismo Planaren ardatzetako bat da aterpetxea.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

### Erantzun ederra ikastaroei

Inoiz ez bezalako erantzuna eman diote herritarrek Udalak antolatu dituen ikastaroei. Yoga suertatu da aurten arrakastatsuen, 25 lagunekin, tartean hiru gizonezko; Oihanaren margogintza taldea 17 emakumek osatu dute; Izaskunekin soinketa eginen dutenak 23 izanen dira, eta Amaiarekin aerobic-a 11 lagunekin eginen dute. Ez da esan beharrik izanen, noski, azken bi talde hauetako kide guztiak ere emakumeak direla.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

### Gaztetxoak futbiton

Xumar Bakeroren gidaritzapean lehenengotik laugarren mailara bitarteko 17 gaztetxo futbitoko entrenamenduak egiten hasi dira ostiraletan. Aurreraxeago inguruko herrietako kontra partidak jokatzeko asmoa ere ba omen dute.

Estalera igotzea... ez da oztopo! plataformak igogailu bereziak auki bereziak...

**Behetik**

Aforgo-haki, 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888  
www.behetik.com

GIZARTEA → ARGAZKIAK

## Argazki erakusketa egingen da aurten ere San Martin jaietan

Argazkiak Kontsejun jaso eta erakutsiko dira

### Maider eta Kontxi

San Martinetarako hilabete inguru falta da, baina aurretik egin beharreko lanak izaten ditugu Aranon. Azken urteetan bezala, aurten ere argazki erakusketa egingen da herritarrek ateratako argazkiekin. Gaia betiko moduan, Arano izango da eta argazkiak Kontsejun jaso eta erakutsiko dira. Aurrerago aipatuko dizkizuegu xehetasun guztiak, momentuz hasi argazkiak prestatzen.

### Ereñozu-Arano VI. igoera

Haritza Eskabazioak laguntzaile zutela, seigarren aldiz egin da aurten bizikletaz Ereñozuko Arano bidea. 15

lagunez osatutako taldeak eguraldi apartarekin egin zuen bidaia, beharbada beroegi, baina egun pasa egiteko ezin hobea. Helmugara lehena iritsi zena Iñaki Gokoetxea izan zen, bigarrena Mikel Otegi eta hirugarrena Garikoitz Etxebeste; beteranoe-tan Oier Santakruz izan zen azkarrena eta nesketan lehena Josune Uzkudun. Aipatutako guztiak saria jaso zuten.

### Bexabitik Aranora

Irailaren 26an egin zuten urteroko Bexabitik Aranorako bidaia Hernaniko Xalaparta elkarteko hainbat kidek. Bazkalondoren, tokan ibili ziren eta Nekane eta Mikelek irabazi zuten; sariak ere jaso zituzten.

### Guraso Elkarteko bilera

Goizueta eta Arano Guraso Elkarteko kideek bilera egin zuten



PINOK UTZITAKO ARGAZKIAK

### Taupada Samba taldea

Irailaren 25erako programatua zegoen, baina ezinezkoa izan zen, egun horretan eguraldia ez zelako gure alde jarri eta astebete atzeratzeko erabakia hartu zuten. Herriko haurrentzako zuzendua zegoen, ez ikusteko, beraiek batukadan parte hartzeko baizik. Oso ongi pasatu zuten, erritmoak ederki eramanez jo zuten, dantzatu ere egin zuten eta haien aurpegietan ikus zitekeen pozik zeudela. Kontsejuko terrazan hasi zen jotzen perkusio taldea, 11:15 aldera, hemen txandaka denak denetik probatuz, ekarritako musika-tresna guztiak, alegia. Azkenerako herrian gora eta behera ibili ziren giro ezin hobean, bai haurrak eta bai helduak ere, bazkaltzeko garaia heldu artean. Elkartean bazkaldu zuten, lehenengo hurrek eta atzetik gurasoek eta batukada taldekoak. Berriz errepikatzeko moduko esperientzia izan zen eta esan beharra dago zorte handia izan dutela herriko hurrek Donostiako Taupada taldeko bost partaide bertan izateagatik. Noski, eskerrak eman behar zaizkio Pinori bera izan baita proiektua aurkeztu eta aurrera eramateko ahalegina egin duena.

irailaren 27an herriko elkartean. Aurrera begira-

ko funtzionamenduan-lan du zuten eta biharamu-

neko Goizuetako bilera orokorrean onartu zuten.

**Koipe eta olio bereizleen kutxatilen garbiketa**

Sukalde industrialetako Koipe eta olio bereizleen Kutxatilen Garbiketa eta Kudeaketa **ZERBITZU INTEGRAL BERRIA** (LER 190809 hondakina). Honekin administrazioaren aurrean sukaldeko uren kudeaketa egokia frogatu ahal izango duzu eta Legea bete.

Laxteko olio erabilien kudeaketa baimendua: GNP/23/NA/2004  
Hondakin arretakuzko gaitasuneko kudeaketa baimendua: T/153/NA/2005

**ECOGRAS**

**Erabilitako landare olioaren bilketa**

Tel.: 902 366 251 • ecogras@ecogras.es • www.ecogras.es • Zaindu zeure ingurumena!

## LEITZA

MUGIKORTASUNA → ZERBITZU BERRIA

# Bizikleten zerbitzu publikoa jarri dute Udalak eta Plazaolak

Urte osoan edo noizbehinka erabil daitezke bizikletak

## TIPI-TTAPA

Plazaola(n) bizi zerbitzuaren bidez, Plazaola Partzuergo Turistikoak, Udalaren laguntzarekin, bizikleten alokairu sistema publikoa jarri du martxan, inguruko beste herri batzuetan bezala.

Bizikletak bi erabiltzaile motei zuzenduak daude: harpidedunei eta noizbehinkako erabiltzaileei. Harpidetzeko edo bizikletak urte osoan maiztasunez erabili ahal izateko, 30 euro ordaindu behar dira; noizean behin erabiltzeko, berriz, nortasuna baieztatzen duen dokumenturen bat aurkezteaz gain, 0,5 euro ordaindu behar dira lehenengo orduan, eta euro bat hurrengoetan –gehienez lau orduz–. Edozein dela ere, kiroldegian egin behar dira kudeaketak.

Bizikleten zerbitzua martxan jartzearen helburu nagusia mugikortasun jasangarria bultzatzea da, kutsadura murriztuz, eta soinuak gabe eta modu azkar eta eraginkor batean bategatik bestera ibiltzeko aukera eskainiz. Aldi berean, osasunaren eta espazio publikoaren gozamenaren alde egin nahi izan dute.

Leitza, Lekunberri eta Iruztunera ekarritako 30

bizikletak asfaltoan edo zementuan, edo lur harroetan ibiltzeko prestatuak daudela adierazi dute; baina ez omen dira erabilgarriak mendiko ibilbideetarako.

Zerbitzua egunero eskaintzen da eta gehiezin lau orduz erabil daiteke. Ordu kopuru hori gaintzen duenak 30 euroko zigorra izateaz gain, hilabete batez ezin du zerbitzua erabili.

## Mikologialdia

Aurten hirugarren aldiz Mikologialdia antolatu du ALKE Kultur Elkartek Udalaren eta Mendibil Mendi Taldearen laguntzarekin. Urriaren 20tik 24ra ontto eta zizak bilduko dira taldeetan eta hurrek marrazkiak eginen dituzte eskolan erakusketarako. Urriaren 23an, 09:30ean hurrekin mendi ateraldia eginen da ontto eta zizak biltzera eta arratsaldean, bildutakoaren sailkapena eginen da. Urriaren 24an, azkenik, 11:00etatik aurrera, erakusketa mikologikoa eta eskolako haurren marrazki-lehiaketaren erakusketa eginen dira Karrapen.

## Hileta zibilak behin betiko onartuak

Udaletxean hileta zibilak egiteko aukera izanen da hemendik aurrerak. Udalak uztailean eman zion araudiari hasierako onespina, eta abuztu hasieran Nafa-



ARGAZKIAK: HITZA

## Giro ederra Aurrera elkartearen egunean

Bazkideek ezin hobeki erantzun zuten urriaren 2an egin zen Aurrera Egunean. Orain artekoan bazkideen erantzuna ona izan bazen, laugarren edizio hau are jendetsuagoa izan zen, batez ere karrapean egin zen herri bazkaria. Gainerako ekitaldiak ere ongi atera ziren.



ARGAZKIA ETA TESTUA: FERNANDO ETXEBERRIA

## Kimikako nobel sariduna Peru-harrin

Argazkian ageri den lagun kuadrillak –Ezkurra eta Leitzaokak– Peru-harri museoa bisitatu zuen irailaren 2an. Eta beraien sorpresarako, bisita gidatua bukatzen ari zirela, hainbat lagun bizikletaz igotzen ikusi zituzten. Eta hantxe agertu zen Dudley Herschbach kimikako nobel sariduna, Etxenike ikertzaile ospetsuarekin. Plazaolako trenbidean barna etorriak zirela esan zuten.

roako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Alegazioak aurkezteko epea bukatu, eta ez denez erreklamaziorik aurkeztu, behin betiko onespina eman zaio araudiari. Herrian erroldatuak daudeneke 50 euro ordaindu behar harko dituzte, eta gainerakoek 100 euro.

## Zinema denboraldia

Urriarekin batera hasi da zinema denboral-

di berria. Saioak ostiralgauean, 22:30ean, eta igandetan, 19:30ean, eskainiko dira. Urriaren 22 eta 24an, adibidez, Michael Hanekeren *La*

*cinta blanca* filma emittituko da. Eta hilaren 29an eta 31n, berriz, David Sladeren *La saga Crepúsculo*. Sarrera sei euro kostako da.

gaztelu scl  
iturgintza  
kalafakzioa · saneamendua · gasa  
Tfnua: 948 510 086 · 948 510 156  
Faxa: 948 610 856  
LEITZA



EHIZA → DENBORALDI BERRIA

## Iaz baino 6.000 euro gutxiago atera dira uso postuen enkantean

Guztira 12.000 euro atera dira 26 ehiza postuetan

**Juana Mari SAIZAR**

Uso ehizako postuak kostata bete dira bigarren enkantean. Guztira 26 postu dira eta aurtan ateratako dirua 12.000 eurokoa izan da, iaz baino 6.000 gutxiago. Kriaren eragina eta usoaren pasearen norabidea aldatu dela izan daitezke diruaren beherkadaren zergatiak.

**DENBORALDIA HASI ORDUKO BASURDEA**

Basurde ehiza garaia irailan ireki zen eta Are-

so eta Leitzako kuadrilla batek 128 kiloko basurdea harrapatu zuten. Tiroa eman ziona Francisco Pellejero herritarra izan zen. Ez da ohikoa halako pisuko animaliak ehizatzea, inoiz ez omen zaie horrelakorik tokatu.

### Nazioarteko lehiaketan ere irabazle Alustiza

Oñatin (Gipuzkoa) jokatzen den Nazioarteko Artzain Txakur Lehiaketan hamahiru urte pasatu eta aurtan azkenean Antonio Alustiza nagusitu da, *Tiki* txakurra-ekin. Lehenengo fasean lehena geratu zen, bigarrenarengandik puntu batera. Eta bigarren fa-



UTZITAKO ARGAZKIA

128 kiloko basurdea harrapatu dute Leitza eta Aresoko ehiztari kuadrilla honek.

sean lan oso ona egin ondoren puntu dezente kendu zizkion bigarrenari. Zazpi urteko txakurrak Antonioren esanak umil eta arin-arin bete zituen, eta hori izan zen artaldea ongi menderatzeko gakoa.

### Herriko langileak

Herriko lanetan aritu diren bi langileak bukatu dute lau hilabeteko kontratua mendiko lanetan eta iguruko bazte-

rrak, bideak, ubideak eta herria txukuntzen aritu ondoren.

### Kirol kontuak

Unai Onsalo herriko pilotaria Pauen izan da Munduko Pilota Txapelketa jokatzen. Hau idazterakoan oraindik ez genuen emaitzarik lortua baina zorterik onena opa diogu, hurrengo alean idatziko ditugu xehetasunak.

Bestalde, Adur Etxezarreta herriko txirrin-

dulari gaztea Kantabriari izan zen Espainiako Txapelketan. Nafarroako selekzioaren aritu zen eta bere mailan 70 lehiakideren artean, zortzigarren gelditu zen. Orain, denboraldi hau bukatuta, negu partean eskiatzen hasiko da eta hiru hilabeteko kontzentrazio bat prestatua dute Jakan (Huesca), Eguberri ondoren. Han izango da Adur ere, baina bere berri aurrerago idatziko dugu.



**Grupo Tanatorio Taldea**  
**IRACHE**  
Maldaerreka S.L.

**24 ORDUKO ZERBITZUA**  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

<b>Bera</b>	948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA	
<b>Doneztebe</b>	948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA	
<b>Elizondo</b>	948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN TANATORIO BAZTANDARRA	
<b>Leitza</b>	948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA	
<b>Lesaka</b>	948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA	

# BAZTAN

KULTURA → EUSKAL KANTUAK

## Baztango kantuzaleen hitzordua astero Amaiurren

7 eta 14 urte bete dituzte Amaiurko Gaztelu Taldeak eta Talde Basak

### TTIPI-TTAPA

Euskaldunak betidanik izan du kanturako zaletasuna. Eta afizio hori abesbatzetan parte hartuz asetzen dute batzuek, eta mahai inguruan kantatuz, bertzeek. Baztanen, erraterako, hortxe dago urteetan Elizondoko Abesbatza. Baina horrez gain, badira kantuzaleetasunaren bertze adibide batzuk ere: Gaztelu Taldea eta Talde Basa. Biak ere Amaiurkoak, baina Baztango bertze herrietako jendea ere mugitzen dutenak. Bien funtzionamendua desberdina izan arren, baten zein bertzearen helburua euskal kantak abestuz «ongi pasatu eta gozatzea» da. Halaxe adierazi digu Juan Mari Aleman amaiurtarrak, bi taldeetako kide denak.

### GAZTELU TALDEA

Euskal kantak hiru aho-

### KANTUZALETASUNA

«Gaztelu Taldeak musika euskalduna baina modu serioagoan eta landuan egiten du. Talde Basak, aldiz, besta giroan»

«Afizioa eta gogoa izanez gero, kantatzeko edozeinek balio du»

Juan Mari ALEMAN  
Amaiurko kantuzalea

tsetara abesten dituen Gaztelu Taldea duela 14 bat urte sortu zen. Eta hasieratik izan zuen harreara onaherrian. Denborarekin, halere, aldaketak izan ditu: «taldea hasi zenean gehienak amaiurtarrak ginen, eta orain hiru bertzerik ez gara eta gainerakoak Baztango bertze herrietakoak dira», azaldu digu Alemanek. Gaur egun, zuzendariaz gain, 36 urtetik 60 urte bitarteko Amaiur, Erratzu, Elbete, Elizondo, Aniz eta Berroetako 18 kidek osatzen dute taldea.

Asteazkenero egiten dute hitzordua, 21:30ean Gaztelu Elkarteetan. Eta asteroko entseguez gain, herriko bestetan emanaldi tiki bat eskaintzen dute. Ondoko herrietan eta «tarteka urrunxeago» ere saioak eskaintzen omen dituzte: «Baztango herri batzuetan, Baigorri (Nafarroa



ARGAZKIAK: FELIX MENA ETA MIKEL SOBRINO

Goiko argazkian Gaztelu Taldea eta behehikoan Talde Basa.

Beherea), Aldude (Nafarroa Beherea), Hondarribia (Gipuzkoa), Donostia, Antzuola (Gipuzkoa)...

### TALDE BASA

Izenetik antzeman daitekeen bezala, Talde Basa ez da Gaztelu Taldea bezain «serioa». «Bi estilo jorratzen dituzte», dio amaiurtarrak: «Gaztelu Taldeak musika euskalduna baina modu serioagoan eta landuan egiten du. Talde Basak, aldiz, besta giroan».

Kontatu digunez, «otordu batzuetan elkar-tu eta mahai inguruan kantatzen» aritzen dira Talde Basakoak, ahots batera edo gehienez bi ahotsetara. «ongi pasatzen dugu», gaineratu du. Orain 7 urte inguru sortu zen eta 25 urtetik 48 urte bitarteko Amaiur eta Elizondoko 12 lagunek osatzen dute, zuzendaririk gabe. Elizondoko Fe-

rien ondoko ortziralearn hasi eta apirileko azken ortziralararte, 22:00etan Gaztelu Elkarteetan afaldu eta ondotik kantari aritzen dira.

Ibili izan dira herritik kanpo ere, hala nola, Baztango bertze herrietan, Bankan (Nafarroa Beherea), Saran, Urdazubin... Baina badute ne-gu partean hutsik egiten ez duten bertze hitzordu berezi bat ere: zeri-hiltzea. «Euskal zeri bat hiltzen dugu Amaiurko Salaberriko Bordan, Bittor Jauregik –Tal-de Basako kidea– hazitakoa. Modu tradizionalen hiltzen da, odolkiak, iratzearekin erre, anisa eta gailetak... Zerri pus-kak lehendabiziko barrideei banatu...», adierazi digu Alemanek.

### DENETARIKO KANTAK

Baztan-Baigorri kan-ten liburuxkatik hartuta-

ko abestiak aukeratzen dituzte, zaharrak batzuk, berriak bertzeak, ezagunak gehienak eta hain ezagunak ez direnak bertzeak, baina Amaiurkoaren irudiko, denak ere «arras politak».

Euskal kantak abes-tea gogoko duenari ere luzatu dio aholkua: «tal-de batean parte hartu eta kantua-rekin goza deza-la. Gero ikusiko du giroa, estiloa, kanta motak... zein gustatzen zaion ge-hien edo zeinetan goza-tzen duen gehien. Jua-nito Erasok erraten zu-en bezala, kantatzen du-ten herriak bizi dira». Eta kantatzea «terapia ona» delakoan dago, «gure bi-zimoduan ditugun ara-zo guziak lasaitzeko. Afi-zioa eta gogoa izanez gero, kantatzeko edozei-nek balio du».

Gonbidapena gustu-koa izanez gero, hitzor-dua Amaiurren.



HEZKUNTZA → AZPIEGITURAK

## Hasi dira Iruritako eskola berria eraikitzeko lanak

2011/2012 ikasturterako prest egotea espero da

### Maite OTEIZA

Urriaren 1ean eman zitzaion Iruritako eskolako obrari hasiera. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak egindako lehiaketan, Doneztebeko Ma-

riezcurrrena enpresa gelditu zen lehenbiziko postuan eta, beraz, berari agindu dizkio lanak.

Iruñetik egindako deialdian ageri denez, gehienez sei hilabete eta guttienez bortz hilabete-ko epea dute egiteko, obra baimena eskuratzen dutenetik hasita.

Hasiera batean, Egu-berrien ondorako izanen zela erran zen, gero otsailera gibelera zen ondo-



ARGAZKIA: XABI BALLARENA

Argazkian ikusten den eremuan eraikiko dute etorkizuneko Iruritako eskola berria.

rik Aste Saindura. Azkenik 2011/2012 ikasturterako prest egotea espero da.

Eskola berria Arania frontoiaren ondoan

dago, Udalak erositako lur eremu ttiki batean.

### Liburutegiaren inaugurazioa

Heldu den astean, urria-

ren 20an inauguratuko da liburutegi berria.

Horren harira, 17:30ean antzerkia izanen da euskaraz *Pasadas las 4* taldearekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

### BKTko neskak txapeldun Andosillan

Denboraldi berria modu paregabean hasi dute batzuk. Baztango Kirol Taldeko infantilek, behintzat bai. Urriaren 2an Andosilla Hiria eskubaloi torneoan parte hartu zuten eta bai irabazi ere. Goizean bi partida jokatu zituzten eta arratsaldean finala etxeko taldearen kontra. Txapeldun izateaz gain, torneoko jokalaririk onenaren saria BKTko taldekide batentzat izan zen: Oronoz-Mugairiko Maite Arregirentzat.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Hauek tomateak Erratzun

Argazkian ikus daitezkeen bi tomate ederrak Erratzuko Sumusuko Garazi eta Nereak Filipeneko bartzanean hartutakoak dira, etxean egindakoak. Garazi 1,260 kiloko tomate eskuan dago eta Nerea, berriz, 750 gramokoarekin. Gaugergero otordu ederra egin izanen dute...

**Eskisaroi**  
J. URRUTIA  
Jaime Urrutia  
Tfn: 948 580 013  
ELIZONDO

**SOULE**  
hileta artea  
Tfn: 948 453 444  
Mug.: 629 659 583  
ARIZKUN

# BAZTAN

KULTURA → OSPAKIZUNAK

## Hamaikagarren kirikoketa besta eginen da urriaren 23an Arizkun

Kirikoketariak, txalapartariak, sagardo dastaketa eta kontzertuak izanen dira

### TTIPI-TTAPA

Jo ala Jo Kultur Taldearen ekimenez, aurtengo hamaikagarren aldiz kirikoketa besta eginen da urriaren 23an, larunbatarekin Arizkun. Egun osoko egitaraua prestatu dute aldi honetan ere:

- **11:00etan:** ate irekiera. Sagardoa eginen da Gamioxarreko Dolaretxean: sagar jotzea, estutzea, zuku dastaketa eta kupeleratzea.
- **Ondotik:** kirikoketa jotzea.
- **Bitartean:** Nafarroako sagardoaren dastaketa eta pintxo eta gaztain jatea. Karriketan

barna musikariak eta dantzariak ariko dira.

- **14:30ean:** herri bazkaria. Txartelak ohiko lekuetan salgai: Intzan, Arizkongo Dolaretxean eta Zubipuntan.
- **18:30ean:** txalapartariak. Hainbat lekutan eta hainbat eratarari ariko dira, horien artean Faltzes, Sara eta Sestaoko txalapartariak etorriko dira.
- **22:00etan:** kontzertuak.

### Aroztegiako proiektuari buruzko batzarra

Aroztegia eta gero zer? plataformak deituta, ortziral honetan, urriak 15, Aroztegiako proiektuari buruz mintzatzeko batzarra egiten da Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Oraingo egoeraz eta hementik aitzinerakoaz ariko dira, 20:30etik aitzinera.



TESTUA: MAITE OTEIZA ETA ARGAZKIA: XABI BALLARENA

### Landa eremuko eskolen garrantzia aldarrikatu dute unibertsitatean

Baztango eta Urdazubi eta Zugarramurdiko eskoletako ordezkari talde bat NUP Nafarroako Unibertsitate Publikoan izan zen buruilaren 30ean, landa eremuko eskolei buruz klase bat eskaini zieten Irakaskuntza egiten ari diren bigarren mailako ikasleei, euskaraz eta gaztelaniaz. Nafarroa mailan, landa eremuko eskolek bere papera eta garrantzia aldarrikatzen dute, hezkuntzan portzentaje aipagarria ordezkatzeko dutelako. Nafarroan 70 landa eremuko eskola daude, eta gaur egun unibertsitatek ateratzen diren hezkuntzako profesionalak ez dute haien berririk, eta Nafarroan dagoen errealitateko eremu bat ez dute ezagutzen. Errealitate hori hausteko asmoz, landa eremuko eskolak unibertsitatearekin hurbildu dira, eta eremu horretan eskolen izaera eta nortasuna kontuan hartzeko aldarrikatzeko.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

### Lekarozko ikasle ohiek Txokoaren 25. urteurrena gogoratu dute

Beraien txokoaren inaugurazioaren 25. urteurrena izan zuten gogoan Lekarozko ikasle ohiek irailaren 26an. Txokoa 1985ean ireki zuten, ikasle eta irakasle ohiek ikastetxea bisitatzen zutenean, biltzeko eta egoteko leku bat izan zezaten. Aldi berean, familian otorduak egiteko ere baliagarria izan da mende laurden honetan. Gaur egun, moldaketa batzuk egin dira eta egoitza soziala bertan izanen dute.

**ANXITONEA Txokoa**

24 ingela hainbatetan - Apartaketa  
Aste gutxiago gela puztetan - Hain txikiak eta TI  
Gela berria saski eta besterik ez duenak

Braulio Iriarte 16, Elizondoa • 948 581 807 • 948 581 853  
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

**Okindegia Jatetxea**

**Uxoa**

**OKINDEGIA:** Ogi artisaua, egunekoa eta txapata  
**JATETXEA:** Menua eta Karta (asteburuetan)  
Especialitatea parrillan erretako jakietan  
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erre, goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea  
Tfn: 948 453 403  
31713 ARIZKUN

**ERREPIDEAK → KONPONKETAK**

# 916.765 euro kostako da Almandozko zeharbidea berritzea

Nafarroako Gobernuak 714.790 euroko dirulaguntza emanen du

## TTIPI-TTAPA

916.765 euro kostako da Almandozko zeharbidea berritzea eta horietatik 714.790 euro Nafarroako Gobernuak bideratuko ditu. Hala hitzartu zuten irailaren 29an Laura Alba Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak eta Virginia Aleman alkateak eta Santi Aldako alkateordeak Udalaren izenean.

Nafarroako Gobernuak bi departamentuk emanen dute dirulaguntza: 463.487 euro Herri Lan, Garraio eta



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Ezkerretik hasita, Virginia Aleman alkatea, Laura Alba kontseilaria eta Santi Aldako alkateordea, irailaren 28an hitzarmena sinatu zutenean.

Komunikazio Departamentuak paratuko ditu; eta gainerako 251.303 euroak Toki Administrazio Departamentuak paratuko ditu 2009-2012ko Toki Azpiegituren Planaren bitartez (sareen berritze lanak).

Hitzarmenaren arabera, Udalaren esku geldituko da obraren kontratazioa eta zuzendaritza, eta lanak egiteko behar diren ondasun eta eskubideez ere berak arduratu beharko du.

500 metroko zatian eginen dira lanak eta be-

reziki zoladura berrituko da. Horrekin batera, elektrizitate, telefono eta argiteria publikoaren kanalizazioak ere zaharberrituko dira. Bidearen gehieneko zabalera zazpi metrokoa izanen da, eta bi aldeetan espaloiak izanen ditu.

## NAFARROA

Lur aretoan jokatu da Kantu Txapelketako finala

## TTIPI-TTAPA

Euskal Kantuzaleen Elkartearen ekimenez, abian da Nafarroako Euskal Kantu Txapelketa. Izena emateko epea zabalik dago eta urrian egin behar da, Kantuzalearen Nafarroako egoitzara deituz (948 144706) edo idatziz ([nafarroagaraia@kantuzale.net](mailto:nafarroagaraia@kantuzale.net)). Xorroxin (948 581374) eta Karrape (948 610914) irratietan ere eman daiteke izena. Txapelketako lehen kanporaketa azaroaren 6an jokatu da Etxarri-Aranazen; bigarrena Berriobeitin eta finala Elizondoko Lur dantzalekuan, azaroaren 20an. Saioak 18:00etan izanen dira.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

## Bat bertzearen larruan jartzeko Bidelagun jardunaldia

10 urte bertzearen larruan jartzen izenburupean Bidelagun jardunaldia egin urriaren 2an Elizondoko Kultur Etxean. Ekimen irekia izan zen, eta tartean hainbat solasaldi izan ziren: Madrilgo Konplutense Unibertsitateko Jose Carlos García Fajardok Bertzearen larruan jarri hitzaldia eskaini zuen; Javier Elzok, berriz, *Gazteria: nolakoa da. Nola inplikatu gizarte ekintzan. Joerak eta aukerak* izan zuen hizpide. *Bidelagun 10 urte* bideo emanaldia ere izan zen, baita *Praktika egokiak boluntarioratzen* mahai-ingurua ere. Akitzeko bazkaria egin zuten.

aroztegia 1890az geroztik  
GARAJEKO ATE SEKZIONALAK  
ATAKAK HESIAK  
LANGAK BALKOIAK



# Arotxa

Miguel Azcárraga  
Kale Nagusia, 6 31730 Irurita  
Tel. 948 581 418 / 650 532 073

[marotxa@terra.es](mailto:marotxa@terra.es)

# ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → AZPIEGITURAK

## Guztira hamalau hilobi berri egin dira kanposantuan egin diren lanekin

Erosi nahi duenak Herriko Etxera joan behar du

### Koro eta Margari

Kanposantuko lanak finitu berriak dira: bigarren iturri bat eman da dagoeneko, barneko aldean eta kanpo-ko aldean farola bana ere paratu dira, eta horrez gain, hamalau hilobi berri ere eraiki dira. Hilobi hauek salgai eman dira eta interesatuta daudenek Herriko Etxean galdetu beharko dute.

### Gela berria eskolan

Ez dakigu hilerria haunditzearena berri ona ote den... Baina

eskola haunditzea segur gaude gauza ona dela. Herria aitzinera doaielako seinale ona da.

Zugarramurdiko eskolan gela berri bat ireki behar izan dute, haurren kopuruaren beharrez. Orain arte psikomotrizitate gela zena ikasgela bihurtu dute, eta psikomotrizitate gela, berriz, patio estaliratan eraman da. Patio-ko zati bat etsi dute horretarako, eta hura gurasoek pintatu eta txukundu ondotik, ederki gelditu da.

### Dirulaguntza

Turismo jarduerak garatzeko dirulaguntza eman dio Nafarroako Gobernuak Udalari. Zehazki 2.686,32 euro hartuko ditu.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Kanposantuaren bi zatiak ageri dira argazkian: eginak dauden hilobiak eta saltzeko dau-denak.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

### Jende andana herrietako eskolen bestan

Izigarri ongi gan zen urriaren 3an egin zen eskola ttikien eguna eta 235 lagunek parte hartu zuen. Goizean pasaietan ibili ziren Zugarramurdiko eskoletatik Narkoneko-bordaraino, pottoka-bidetik, leizea gurutzatuz. Eta eguerditik aitzinera bestak Urdazubin segitu zuen, bazkaria eta musikarekin.

**Iñaki Alzuyet margoak**  
Pintura dekoratiboa eta industriala • Fitxadak • Barmakideak  
Dekorazioa: etxekoak, beladurak  
Lakatu eta barmizatuak kabinan • Pladura  
Haini eta eguna arnudoarekin garbitzen da  
Itur-ttipi etxea - Landibar Auzoa - 31711 URDAZUBI  
Tel: 659 862 417 - pinturasalzuyet@yahoo.es

**MONTXO OSTATU**  
Dantxarinetik 2 km-tara  
**TABAKO-DENDA**  
**ANZAN-BORDA • URDAZUBI**  
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

**PPSOE,**  
Euskal  
Telebista  
digitala  
**Nafarroan  
orain!**  
Berria erosi taldea

**Pierresenea**  
OSTATU • JATETXEA  
Jaki tipikoak • Etxeko giroa  
Burrutiz auzoa • Tfn: 948 582 043  
ORONOZ • MUGAIRI

**AISIALDIA** → URRIAREN 18TIK 23RA

## Aurten ere egur- ikatzia nola egiten den ikusteko aukera izanen da Olentzero ekimenari esker

Xalbat  
ikazkinak  
bi txondor  
eraikiko ditu

**Joanes GARCIA**

Turismo Bulegoak jakinarazi digunez, Herriko Etxeak eta Arbolak elkarteak Pays Basque Magazine hilabetekariaren laguntzarekin Olentzero deituriko ekimena antolatuko dute aurten ere.

Leizetako bidean den Garbala auzoan iraganen da urriaren 18tik 23ra. Euskal Herriko ikazkin famatuena aipatuko bada, bertze gauza aunitz ikus eta entzuten ahalko dira.

Urteak joan arau zazpi herrialdeetako txondorrek desagertu dira. Zorionez, Nafarroako Biloria herria ikaztegiak erretzen dira oraindik, eta Biloriako Xalbat ikazkinak Sarako oihanean bi txondor eraikiko ditu eta ondare hau partekatuko. As-teazkenean eta larunbatean edonor bisita-

tzera joaiten ahalko da, eta asteko bertze egunak eskolentzako izanen dira.

Xahetasun gehiagorentzat Herriko Etxera deitu: 0559542014.

### Bertsu xapelketaren 3. kanporaketa

Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko bertsulari xapelketaren hirugarren kanporaketa Lurberri gelan egin zen urriaren 3an. 100 bat bertszulek aretoa bete egin zuten giro ezin hobean.

Eneritz Zabaleta baionarra gailendu zen saio borobil bat buruturik. Berarekin batera, Mixel Aire *Xalbador II* alduarra finalerdietarako sailkatu zen.

Hiru kanporaketetik beste lau bertsulari puntuazioaren arabera sailkatuko dira eta finalerdiak Luhuson –urriak 16– eta Gabadin –urriak 23– iraganen dira Sustrai Colina eta Amets Arzallus bertsulariekin.



ARGAZKIA: JOANES GARCIA

Duela bi urte Koldo Aznarez ikazkina etorri zen txondorrek egitera.



ARGAZKIA: JOANES GARCIA

### 111 lagun mendi bizikleta ibilaldian

Joan den buruilaren 26an Sarako mendiko bizikletaren eguna iragan zen. 111 parte hartzaile ibili ziren bi ibilbideetan. Erranek diotenez, 30 kilometroko ibilaldian sufritu behar izan zuten lbanteliko patarretan. Antolakuntzak Philippe Garbiso eta haren ekipak eginiko lana goraiatu nahi luke.



# SENPERE

KIROLA → PILOTA

## Hiru herritarrek parte hartu dute berriki egin den munduko pilota xapelketan

Paxkal Haroçarene, Jean Michel Mendi eta Damien Aguerre izan dira

### Franck DOLOSOR

Urriaren lehena eta hamarrena artean, hamarnaka partida jokatu dira Pauen, Lescar eta Oloruen Munduko 16. Pilota Xapelketaren kariatarat. Hiru herritar agertu ziren hantxe: Paxkal Haroçarene epaile olhatarra, Jean Michel Mendi entrenatzaile amoztarra eta Damien Aguerre 19 urteko pilotaria.

### PARTIDA GALDU

Goñi eta Aguerrek 22-3 galdu zuten Hegoaldeko Irigoien eta Herviasen kontra. Aguerrek porrota jasan zuen Pauen, baina aipagarria da bide ederra egin duela orain arte. Sei urtetan pilotan jokatzeko hasi zen Jean Ithourria irakaslearekin eta zorbait xapelketa irabazi izan ditu plaza laxoan eta trinketan. Bertzaldean ere doi bat aritu da ezker paretan. Baina hara, hirugarren jokoa izanez, argi da

Iparraldekoek ez dutela gauza haundirik erdiesten ahal Hegoaldekoen aitzinean, hantiki-ttiketik ezker paretan baizik ez baitira aritzen. Alde handia bada Ipar eta Hegoaldeko pilotarien artean ezker partean jokatzeko eta hori gertatu zaio Pauen Aguerre, burua makurtu izan behar duela bertze aldekoen aitzinean.

### Saihesbidea hiru urteren buruan

Urguri auzoan barna pasako den Karrika Nagusiko saihesbidea 2013ko primaderan prest izanen dela oitartazi du berriki Bernard Auroy Uztaritzeko kantonamenduko kontseilari nagusiak.

Jendarmeriaren ondoan altxatu den itzulbidearen ondoko zubia

egiten hasi dira egun hauetan. 45 metrako luzatasuna izanen du lehen zubi hunek. Gero pittaka-pittaka bidea egiten segituko du te Urguri erdiraino eta han bertze itzulbidea egingen da. Baliteke bide parte hori autoei idokitzea urte bat eta erdi urte buruan. Urgurirat sartzeko bide berria izanen da beraz, eta gero ondotik lanek se-

DATUA

# 2013

URTEAN

Karrika Nagusiko saihesbidea prest egonen da, zehazki primaderan. Horrela baieztatu du berriki Bernard Auroy Uztaritzeko kantonamenduko kontseilari nagusiak.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

### Ekhi Erremundegi bertsu xapelketako finalerdira sailkatua

Duela bi urte iragan zen lehen bertsu xapelketan bezala, aurten ere lehen finalerdian eta beraz, beharbada finalean ere kantatuko du Ekhi Erremundegik. 21 urteko bertsulari hau baionarra da, baina senperrak ere bai pixka bat, aitaren familiaren partetik. Bilbon Zientzia Politikoak ikasten dituela eta, aurten guti entrenatu da Ekhi baina urriaren 2an Saran jokatu zen norgehiagokaren hirugarren eta azken kanporaketan hirugarren tokian sailkatu zen eta beraz, finalerdira joateko txartela irabazi zuen. Orain taula gainean kantatuko du Luhuson urriaren 16an 17:00etan. Amets Arzallus gaur egungo xapeldunarekin lehiatu beharko du, bertzeak bertze. 2008an finaleraino heldu zen eta sorpresa handia sortu zuen Ekhi Erremundegik.

gituko dute Ama Birjinaren itzulbideraino bigarren zubi bat ere eraikiko delarik haraino joateko gisan.

### Arretxea kolegioaren ikasturte hasiera

Arretxea kolegioan lan eta lan ari dira herriko gazteak eta beren eskola emaleak. Aurten, orotarar 220 ikasle dabilta herriko kolegio pribatu huntan eta horietatik hirutik bat sail elebidunean ikasten ari da. Aurten ere animazio andana egingen dute Arretxean, bidaiak Europan barna, erlijioari buruzko ikasketak eta ibilaldi bat oinez Done Jakue Bidearen zati bat eginez.

**ttipi-ttapa**  
www.ttipi.net

aldizkaria etxera bidaltzea nahi baduzu,  
deitu telefono honetara:

(0034) 948 63 54 58





## EZKONTZAK

**Rafa Errandonea Ordoki** eta **Izaskun Bertiz Telletxea**, Arantzakoa eta Beintza-Labaiengoa, urriaren 2an Beintza-Labaienen.

**Jokin Sagastibelza Perez de Goldarazena** eta **M<sup>a</sup> Jose Azpiroz Barriola**, urriaren 9an Leitzan.

**Jose Francisco Gorostiaga Goñi** eta **Edurne Mutuberría Estanga**, Ezkurrakoa eta Doneztebekoa, irailaren 18an, Legasan.

**Jose Galarregi Gonzalez** eta **Carmen Pikabea Fuentes**, Sunbillakoa eta Doneztebekoa, irailaren 11n Donezteben.

**Mikel Arretxea Migelena** eta **Irene Tumas Arrieta**, Sunbillakoa eta Doneztebekoa, irailaren 18an Donezteben.

**Beñat Goia Aizkorreta** eta **Nagore Berroeta Zabaleta**, Oiartzungoa eta Goizuetakoa, irailaren 25ean Goizuetan.

**Iker Aiestaran Retege** eta **Beatriz Berruet Mitxelena**, Lesakakoak, irailaren 25ean Lesakan.

**David Saragueta Esarte** eta **Ana M<sup>a</sup> Rivera Iribarren**, Iruñekoa eta Eibar-koa, irailaren 25ean Sunbillan.

**Joakin Salaberria** eta **Christine Sorhouet**, irailaren 18an Saran.

**Felix Locquet** eta **Elodie Bhambon**, irailaren 25ean Saran.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Urtzi Mendiburu Erasun**, Doneztebekoa, irailaren 5ean.

**Cannellia Lapeyre Oyono**, Lesakakoa, irailaren 26an.

**Ekaitz Gomez Ariztimuño**, Leitzakoa, irailaren 21ean.

**Aritz Iturrino Arraras**, Leitzakoa, irailaren 21ean.

**Aritz Altadill Lazkano**, Leitzakoa, irailaren 29an.

**Iera Urbizu Garziarena**, Leitzakoa, irailaren 27an.

**Bixente Huba**, Sarakoa, irailaren 15ean.

**Nina Saioa Belleret Etxeberri**, Sarakoa, irailaren 18an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Kote Taberna Arana**, Lesakakoa, irailaren 23an, 53 urte.

**Joakin Martin Berezo**, Ezkurrakoa, irailaren 27an, 64 urte.

**Jose Prieto Aginagalde**, Berakoa, irailaren 26an, 90 urte.

**Antonio Albistur Mindegia**, Beintza-Labaiengoa, urriaren 2an, 99 urte.

**Pedro Aranguena Mirandona**, Iruiritakoa, urriaren 3an, 97 urte.

**Francisco Iribarren Irigoien**, Erratzukoa, urriaren 3an, 90 urte.

**Iñaki Aizkorbe Sanzberro**, Sunbillakoa, urriaren 4an, 37 urte.



### Kote TABERNA ARANA

Lesakan, 2010eko irailaren 23an



*Irundikan Lesakara  
izoki baten gisara  
Zure keinu maitekor horrekin  
gure baitan bihi zara*

**BERAKO LEHENGUSU-LEHENGUSINAK**



### Anastasia ERRANDONEA ERRANDONEA

Beran, 2007ko urriaren 16an

**III. URTEURRENA**

*Seguru urte aunitz pasako direla  
eta hau hirugarrena bertzerik ez dela izanen  
Baina urteak kontatu ahal izateak berak  
zurekin ahazten ez garela adierazten du.*

**ZURE FAMILIA**



### Lino INDAKOTXEA ARIZTEGI

Zubietan lan istripuz hil zen, 36 urte zituela,  
2009ko urriaren 20an

**I. URTEURRENA**

*Lino, bihotz garbia eta handiaren jabea  
zure jatortasuna zen paregabea  
zure irria eta zure umorea  
beti izanen dugu gurekin gordea.  
Atta, asko maite zaitugu.*

**IZASKUN, JONE, LANDER ETA FAMILIA**

Duela hiru urte egin zuen profesioaletarako saltoa Mikel Nieve Euskaltel-Euskadiko txirrindulariak (Leitza, 1984). Baina orain hila-bete, Espainiako Vueltako etaparik gogorrena

irabazi, eta hedabide gehien azalean ikusi genuen. Garaipenarekin pozik dagoela aitortu digu, eta oraindik hortaz jabetu ezinik dagoela. Joan den asteburuan Paris-Bourges las-

terketan aritzekoa zen eta larunbat honetan egingen den Lonbardiako Giroa izanen du denboraldi azkena. Vueltako garaipenaz eta eguneroko martxaz solastu zaigu.

Mikel NIEVE | Leitza txirrindularia

# «Muga baten barrenean, baina kontrolak beharrezkoak dira»

G. PIKABEA | LEITZA

Denboraldia bukatzeko lasterketa bakarren faltan, ohiko entrenamenduetan topatu dugu Mikel Nieve (Leitza, 1984), fisikoki nahiz psikologikoki «ongi». Ez da gutxiagorako, Espainiako Vueltan egin duen lan bikaina bada pozik egoteko nahikoa arrazoi. Euskaltel-Euskadiko txirrindulariak Espainiako Vueltako etaparik gogorrena irabazi zuen irailaren 13an (Gijón-Cotobello) eta sailkapen nagusian 12. postuan bukatu zuen itzulia. Huraxe izan zen Nieveren profesioaletako lehenbiziko garaipena.

Vueltako etapa garaipenetik egunak pasatu badira ere, «asimilatzea kostatzen» ari zaiola aitortu dio txirrindulariak TTIPI-TTAPari. «Profesioaletara pasatu nintzenez, zaila egiten zitzaidan etapa bat irabaziko nuela imajinatzea. Eta lasterketa haundi bat izanda eta horrelako etapa batean irabazita, oso pozik nago». Fisikoki baino «buru aldetik gogorragoa» egin omen zaio Vueltan, baina orokorrean, «nahiko ongi» bukatu duela azaldu digu. Garaipena lortu duela sinestu ezinik, bai bera eta bere irudiko, baita inguruko ere: «zoriondu egiten naute, baina nik uste oraindik ere nahiko harrituak daudela».



ARGAZKIA: HITZA

Mikel Nieve leitzarria Vueltako 16. etapa irabazi ondotik podiumean.

## PROFESIOALETARAKO SALTOA «HAUNDIA»

Duela hiru urte egin zuen Nievek afizionatuetatik profesioaletarako urratsa. Eta saltoa nabaritu zuela adierazi digu: «maila haundiagoa da, entrenamendu gogorragoak, gehiago zaindu behar... Munduko hoberekin ari zara eta nabaritzen da». Azken bi urteak Euskaltel-Euskadi taldean egin ditu, eta beste bi denboralditarako ere luzatu diote kontratua, 2011 eta 2012rako: «Vueltaren aurretik hitz eginda zegoen. Banuen

**PROFESIOALETAN**  
«Profesioaletara pasatu nintzenez, zaila egiten zitzaidan etapa bat irabaziko nuela imajinatzea. Eta lasterketa haundi bat izanda eta horrelako etapa batean irabazita, oso pozik nago».

**ETORKIZUNERA BEGIRA**  
«Vueltan eman dudan mailarekin segitu nahi nuke, eta ahal bada, beste garaipen bat lortu. Zaila da eta pixkanaka joan nahi dut».

taldean segitzeko gogoia eta nahiko erraz ailegatu ginen akordio batera». Izan ere, taldean «oso gustura» dagoela aipatu digu: «afizionatuetan ezagutu nuen jendea badago, eta lagunak egin ditut».

Larunbat honetan, hilak 16, Lonbardiako Giroan (Italia) parte hartu ondotik, emanen du bukatutzat aurtengo denboraldia. Bitartean ohiko entrenamenduekin segituko du: «goizean jai ki, gosalduta, entrenatzen ari joan, etxera etorri, bazkaldu, siesta tiki bat

egin eta arratsaldean lagunekin egon». Egunaren arabera, ibilbide desberdinak egiten ditu: «batzuetan ordu bat eta erdiz edo bi orduz ibiltzen naiz, eta besteetan, lau, lau ordu eta erdi edo bost orduz». Leitzatik Iruñera, Ultzama edo San Miguel aldera ibiltzen omen da gehienbat, baina Baztanera ere «asko» joaten dela esan digu.

Txirrindularitza profesioalean maiz somatzen diren positiboez ere galdetu diogu leitzarriari: «nik uste gero eta hobeki dagoela kontua. Aurten positibo gutxiago egon dira eta momentuz hobeki gaudela uste dut. Ea horrela segitzen duen». Eta kontrolak beharrezkoak al dira? «Muga batekin bai», dio Nievek: «Egunero lokalizatuak gaude, edozein momentutan etxera etortzen ahal dira proba egitera... Muga batzuen barrenean, baina kontrolak beharrezkoak direla iruditzen zait».

Umiltasunez baina gogotsu begiratzen dio etorkizunari leitzarriari, «Vueltan eman dudan mailarekin segitu nahi nuke, eta ahal bada, beste garaipen bat lortu». «Zaila» ikusten duen arren, «pixkanaka joan nahi dut», dio. Ea bada, baduen zortea. Profesioaletan egin berri duen saltoa haundia izan baita.

AIZKORA → NAFARROAKO TXAPELKETA

# Maila Nagusiko finalean aritu dira Larretxea aita-semeak lehen aldiz

Donato hirugarren izan da eta Oihan bosgarren

**TTIPI-TTAPA | E. ARANATZ**

Etxarri-Aranatzen jokatu zen urriaren 3an, Nafarroako Maila Nagusiko Txapelketaren finala, eta herriko semeak, Floren Nazabalek, jantzi zuen txapela seigarren aldiz. Lehen kanaerdikoa kenduta, gainerako saio osoan aritu zen aitzinetik txapel-duna. Baina nabarmenezko bertze kontua Donato eta Oihan Larretxea aita-semeak biak lehendabiziko aldiz finalean



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Oihan Larretxeak lehen aldiz hartu du parte Maila Nagusiko finalean, eta Donato aita izan du kontrarioetako bat.

aritu izana da. Aita hirugarren gelditu zen eta bosgarren postuan semea.

Gainerakoan, lan erdietan (bosgarren enborra, lehen oinbikoa) Nazabalek minutu ba-

teko aldea kendu zion Juan Jose Lopez txapel-dunordeari, Donato Larretxeari 3 minutu eta 5

segundoko tartea, Antonio Senosiaini 3 minutu eta 13 segundokoa eta Oihan Larretxeari 5 minutu eta 34 segundokoa.

Bi kanaerdiko, bi 60 ontzako, bi oinbiko, bi 60 ontzako eta bi kanaerdiko ebaki behar izan zituzten eta honela gelditu zen sailkapen nagusia: Floren Nazabal (Etxarri Aranatz) garaille 28:18ko denbora egin ondotik; Juan Jose Lopez (Lezaun) bigarren (29:57); Donato Larretxea (Arantza) hirugarren (33:28); Antonio Senosiain (Olague) laugarren (37:30) eta Oihan Larretxea (Bera) bosgarren (41:57).

HERRI KIROLAK → TXAPELKETAREN LEHEN EDIZIOA

## Joakin Aioroa iturendarra bigarren izan da Euskadiko Ingude Txapelketan

Txapeldunak baino jasoaldi bat guttiago egin du

**TTIPI-TTAPA**

Aurten lehen aldiz, Euskadiko Ingude Altxatze Txapelketa jokatu zen urriaren 3an Aizarnazabalen (Gipuz-

koa) eta guttiatik bada ere, ez zen Iturendarra joan txapela. Joxe Lapazaran bizkaitarra izan zen garaile, 94 jasoaldirekin, baina azpitxapeldun izan zen Joakin Aioroak baino bat gehiago egin zuen. Guztira zazpi kirolari aritu ziren 18 kiloko ingudearekin, minutu eta erdiko txandan.



ARGAZKIA: LEGARRA

### Igor Lasaga eta Jabier Galarregi hirugarren izan dira Euskadiko Arpana Txapelketan

Euskadiko Arpana Txapelketaren finalean ere aritu ziren eskualdeko ordezkariak: Igor Lasaga beraterra eta Jabier Galarregi etxalartarra, hain zuzen. Eta hirugarren postua eskuratu zuten. Lehia Igantziko besten barne jokatu zen urriaren 2an eta bikote bakoitzak 22 epai egin behar izan zituzten. Beratarrek eta etxalartarrak 15:56ko denbora egin zuten. Txapelketako irabazleak, berriaz, Iraizozko Iñaki eta Josetxo Barberena anaiak izan ziren (10:32). Argazkian Lasaga eta Galarregi ageri dira arpanean, finalean.

# urriak 14 - urriak 27

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58

## Topaketak



BERA | 2010.10.16

### Mugarik Gabe Topaketa Boliviaren omenez

Etorkinak eskualdean gizarteratzeko eta herrialde ezberdinetako kulturak ezagutzeko helburuarekin zaspigarren urtez egingen da Mugarik Gabe.

## Ospakizunak




ARIZKUN | 2010.10.23

### Kirikoketa Eguna Gamioxarrean Jo ala Joren eskutik

Sagardoa egitearen eta kirikoketa jotzearen erakustaldia egingen dute hamekagarren urtez. Herri bazkaria, txalaparta eta kontzertuak ere izanen dira.

## Erakusketak



IRURITA | 2010.11.23 bitarte

### Itziar Mikelperizenaren Ehiza margoak Olarin

Ehizarekin zerikusia duten margolanak ikusteaz gain, gai bereko menuak (usoa, basurdea, oreina...) eskaintzen dituzte Olari jatetxean udazkenean.

## Kontzertuak

IRURITA

### Bideko Abesbatzak zikloa

Urriaren 16an Eslolana Loyolaren saioa 19:00etan Parrokian.

BERROETA

### Bideko Abesbatzak zikloa

Urriaren 17an Giltzarrri abesbatzaren emanaldia 12:00etan Parrokian.

## Ikastaroak

ELIZONDO

### Fakturen eta kobrantzen kuadeaketa

Azaroaren 9an eta 11n. (09:00-12:00) Informazioa eta izenematea: 948 625122.

ELIZONDO

### Nire lanak ematen al dit etekinik?: Enpresako kostuen kudeaketa

Azaroaren 16an eta 18an. (09:00-12:00). Informazioa eta izenematea: 948 625122.

CEDERNAREN ESKUTIK

### Enpresa ttiki eta ertainak IKTetara hurbiltzeko

Enpresa ttiki eta ertainak informazioaren eta komunikazioaren teknologiarantz hurbiltzeko ikastaroak Cederna Garalur elkartearen ekimenez. Informazio gehiago: [www.cybersudoe.eu](http://www.cybersudoe.eu) web orrian.

## Antzerkiak

ELIZONDO

### Liburutegiaren inaugurazioa

Urriaren 20an Pasa-das las 4 taldearen antzezlan eskainiko da euskaraz, 17:30ean, liburutegiaren inaugurazio ekitaldian.

## Erakusketak

ELIZONDO

### Nafarroako barazkien erakusketa

Urriaren 4tik 16ra Zaporeak eta emozioak. Nafarroako barazkiak erakusketa Arizkunenean.

### Arcade 64 Kolektiboa

Urriaren 18tik azaroaren 6ra hainbat autoreren pintura erakusketa Arizkunenean.

ZUGARRAMURDI

### M<sup>a</sup> Cruz Siguenzaren margoak ikusgai

Urriaren 17ra arte M<sup>a</sup> Cruz Siguenzaren margo erakusketa Sorginen Museoa.

BERTIZ

### Diana Iniestaren margo erakusketa

Urriaren 1etik azaroaren 30era Diana Iniestaren *Juegos de luz* margo erakusketa ikusgai.

IRURITA

### Mikelperizenaren margo erakusketa

Urriaren 4tik azaroaren 23ra Itziar Mikel-

perizenaren ehizarekin zerikusia duten margolanen erakusketa Olari jatetxean.

## Ospakizunak

ARIZKUN

### Kirikoketa Eguna

Urriaren 23n sagardo egitearen erakustaldia Gamioxarrean, Kirikoketa, herri bazkaria, txalaparta erakustaldia, kontzertuak...

BERTIZ

### Bide Berdeen Topaketa

Urriaren 21ean Goize-

an bide berde garrantzitsuenei buruz hitzaldiak eta Nafarroako en aurkezpena. Arratsaldean Bidasoko Bide Berde-Euroveloko enpresetara bisita.

ETXALAR

### Usategietako igandea

Urriaren 17an. Bezperan ere zenbait ekitaldi egingen dira.

BERA

### Mugarik Gabe

Urriaren 16an jaialdi handia egingen da.

## PROPOSAMENA

BERA

### Lurraren Egunak 24. edizioa beteko du

Eskulangileak, sagardo eta gasna lehiaketak, bertsolariak, barazki eta fruitu erakusketa, argazki erakusketa, haurrentzako lantegiak, taloak, Berako banda, Musika Eskolako musikariak, trikixak, dantzaldia... Egun osorako ekitaldiak antolatuta ditu Gure Txokoak urriaren 24rako. Bezperan ere zenbait ekitaldi egingen dira, tartean Lizuniaga-ko Igoera.



LESAKA

**Keinu Leihoak antzerki jardunaldiak**

**Urriaren 23an** Gilkitxaro taldeak *Zortzi Begi* antzezlan eskainiko du Kasinon 20:30ean. Keinu Leihoak jardunaldiko lehen saioa.

**Lehiaketak**

SENPERE

**Besten inguruko argazki lehiaketa**

**Urriaren 31 arte** Herriko Etxeak argazki lehiaketa antolatu du. Gaia: bestak.

LESAKA

**Beti Gazte elkartearen Argazki lehiaketa**

**Urriaren 30a arte** aurkez daitezke lanak argazki lehiaketarako.

LEITZA

**V. Literatur Lehiaketa**

**Urriaren 30a arte** aurkez daitezke Leitza Kultur Taldearen lehiaketarako lanak.

**Zinema**

LEITZA

**Denboraldi berria**

**Urriaren 22 eta 24an** *La cinta blanca* filma zineman ikusgai.

**Urriaren 29 eta 31n** *Eclipse* filma zineman. Ostiraletan 22:30ean eta igandetan 19:30ean.

ZUGARRAMURDI

**Zine eta sorginkeria zikloa**

**Urriaren 16an** *The Crucible/El crisol* filma 19:00etan Sorginen Museoa. Gazteleraz.

**Urriaren 23an** *Akelarre* filma 19:00etan Sorginen Museoa. Euskaraz.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

**ENTRETENIMENDURAKO GAIAK**

**Liburua**




Gizajendearen ahitzea

**PABLO SASTRE**

Elkar, 2010

Sentimenduz beteriko espazioa da hiria; sentimendu guztiek hirian tokirik ba ote duten, ordea, zalantzan jartzekoa da. Gaur egungo hirian barrena garamatza Pablo Sastre Forest-ek liburu honetan, pausoa astiro emanez. Sentimenduen espazioak arakutzen dituelarik, giza arimaren aztarnei jarraitzen die, askotan ezabatuta baldin badaude ere, eta hainbat galdera luzatzen: Zer sentitzen du lan egin behar duen jendeak? Non dago emakumeen indarra, gizonen kemena, begien distira? Zein harreman dago eskolaren eta otzantasunaren, irudi fabrikatuen eta minik ezaren, ospitaleetako osasungintzaren eta beldurraren artean?...

**Musika**



Artefactos mágicos

**LOBO ELECTRICO**

Promomusika, 2010

Lobo Electricoren emanaldi batera joatea, disko labaten arrastoetara eraman ezin den esperientzia da. Horixe bera zen taldearen erronka. KD eta pare bat single plazaratu ondoren, euren azken lanak aparteko zerbaite eskaini behar zion orain arte egindakoari: torlojuari buelta berri bat. Aitzineko lanekin alderatuta soinu hobetu da. Castellóko Rockaway estudioetan grabatua, eta Garaten nahastua taldeko baterajotzaile Iñaki Guantxe ekoizpen buru zela, *Artefactos mágicos* ongi egituratutako lana da, soinu indartsuago eta landuago batekin, ñabardurez betea, eta aparteko apaindurekin. Bertan bat egiten dute rock zorrotzenak (glitter tankerako bateria erritmoekin), after punk giroak, boogie rock adarjotzaileak eta giro espazialeko heavyak. Hori guztia Magma Doktoreak bere hitz bitxietan islatutako ikuspegi bereziaz atondua. Eraginak? Eurak dira eragina.

**Internet**



Zuzeneko kontzertuen agenda sarean

**MUSIKAZUZENEAN.COM**

Euskal Herrian burutzen diren zuzeneko emanaldien ispilua eta bozgorailu izateko helburuz sortu da MusikaZuzenean egitasmoa. Aunitz dira Euskal Herri luze zabalean antolatzen diren kontzertuak eta zuzeneko emanaldiak. Asteburuetan dira emanaldi gehienak, baina, edozein egunetan bada aukera zuzeneko emanaldi bat dastatzeko. Ez da izanen Europa osoan, ez mundu osoan akaso, Euskal Herria bezalako lur eremu tiki batean bezalako zuzeneko musika eskaintza topa daitekeenik. Gaztetxeak, areto komertzialak, herriko bestak, taberna txikiak, festival handiak... Emanaldi ugari izan arren, aunitzetan zaila izaten da hauen inguruko informazio biltzea. MusikaZuzenean egitasmoa, hutsune hori betetzeko asmotan dator. Informazio zabala eskainiko du musikazale ororentzako, emanaldien berri zehatza eta osatua eskainiz.

**Nire aukera**



**Jasone TELLETXEA**  
Lesakako Telletxea argazkidea

**«Astia dudanean lasai egon eta herri inguruan pasiatzea gustatzen zait»**

Argazki-dendako lanak ez dio asti libre handirik uzten Jasone Telletxea lesakarrari, «denbora gutti daukat, horrelako negozio bat oso lotua da», dio. Halere, aisialdirako bere afizioak ere baditu: «Argazkilaritzaz aparte, mendira eta eskiatzera joatea aunitz gustatzen zait, irakurri, laguneren artean egon...». Asteburuetarako ez du plan zehatzik izaten, «egunaren arabera edozein plan izaten ahal da ona», aipatu digu. Hori bai, denbora gehixeago libre duenean, leku berriak ezagutzeko irrikitan egoten da Jasone. «Bai, edozein leku ezagutzeko prest nago beti, igual zait kanpoan edo bertan. Egona naiz Turkian, Italian, Marokon, eta bertze oporrak, *de tumbing* egoteko, Lanzaroten eta horrela, horiek ere oso ongi daude». Baina orain arte ezagututakoez gain, bertze zenbait leku ere gustora ezagutuko lituzke lesakarrak: «Gustatuko litzaidake Laponia alderajotea, Aurora Boreala ikustera, Alemaniako Oihan Beltza...».

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**BERA.** 80 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde, bainugela eta trastelekua. Berritua. Gas naturala. ☎657 715243/657 799953.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**DONEZTEBE.** Rosa Seminarion, 3. solairuan dagoen pisua salgai. Eskailera batzuen bidez, trastelekura komunikatua. 3 logela eta 2 komun. Moleztatua. ☎679 109423.

**ETXALAR.** Lizaietako paraje zaharberritzeko borda salgai. Lur eremuarekin. ☎661 121540.

**BERA.** Pisua salgai. 3 logela, jantoki osatua eta sukalde bakoikiarekin. 2 logelek ere balkoia dute. Gasa eta berokuntza zentrala. 3. solairuan eta igo-gailuarekin. ☎948631381/697 436845/ elvetearra@aol.com.

**DONEZTEBE.** Zazpigarutze plazan 115m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, 2 bai-

**MERKATU TTIKIA****948 63 54 58**

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

nugela eta trastelekua. Eguzkitsua eta estreinatugabea. ☎630 948271.

**ERATSUN.** 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan eman

**BERA.** Pisua errentan emateko. ☎606 022378/609 209295.

**ETXALAR.** Bi bizitzako etxebizitza lur eremuarekin errentan emateko. ☎662 244389/696 890471.

**ELIZONDO.** Braulio Iriarte karrikan, 3 logelako pisua errentan emateko. ☎676 707620.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan hartu

**MALERREKA** aldean baserri edo etxe bat errentan hartu nahi da. ☎648 812346.

**GARAJEAK/LOKALAK**  
errentan eman

**BERA.** Telefonicarean ondoan garaje itxia errentan emateko. ☎680 549808.

**BERA.** Telefonicarean ondoan, garejea errentan emateko. ☎687 950368.

**ETXALAR.** Funtzionamenduan dagoen ile-apaindegia errentan emateko. ☎948 635025.

**LUR EREMUAK**  
salgai

**LESAKA.** Nabaz auzoan 2.000 m<sup>2</sup>ko lur eremua salgai. ☎677 594892.

**LANA**  
eskariak

**BERA.** Emakume bat etxeko lanetan, zaharrak zaintzen, sukalde lagun-tzaile edo garbiketan arikolizateke. ☎678397046.

**Mutil bat,** lanerako go-goarekin, edozein lanetan aritzeko prest dago. ☎690 190071.

**Neska euskalduna** lanean aritzeko prest: etxeak garbitzen, umeak zaintzen, zerbitzari laneetan... Arduratsua eta lanerako gogoz. ☎679 084578.

**ELIZONDO.** Esperientziadun andre gazte bat etxebizitza garbitzen, plantxan... ariko litzateke. Ahal bada, goizez edo orduka. ☎660 620542.

**DONEZTEBE.** Emakume bat haurrak zaintzen ariko litzateke. Ordu-tegi zabala. Esperientzia haundiko ama. ☎679 210910.

**LANA****eskaintzak**

Baztanen dagoen enpresa batean **administraria**

behar da. Ofimatika, euskara eta frantsesa jakitea eta esperientzia izatea baloratuko da. Interesatuak bidali curriculum: 5 postakutxa, 31700 Elizondo.

**ZERBITZUAK**  
zurginak

**ARANTZA**  
Zurgindegia.....  
- Klase guzietako zurgin lanak  
- Eskatu sarrekontuak konpromisarik gabe  
Jose Miguel Corralles  
Tel. 948 631 568 - 647 870 144  
Gertelena - ARANTZA

**ZERBITZUAK**  
denetarik

**ROSA BELZUNGI**  
PSIKOANALISTA  
Kontuak erabaki eskatu ordua  
☎ 948 272011 (IRUÑA)  
☎ 948 580975  
Jaime Urdia 42-2-D - ELIZONDO

**MOTORRAK**  
salgai

**Golf TDI** salgai, egoera onean. ☎650 064912.



**Mercedes c220cdi,** 150 CV sport coupe salgai, 2006koa, 75.000km. Iru-

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA  
(irailaren 24tik urriaren 1era bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 30,00 € (=)

**Zerri gizena**  
1,064 € kilo. (-0,026)

**Zerramak:**  
0,430€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,89 (=)

**1.koa** 3,58 (=)

**2.koa** 3,05 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,99 (=)

**1.koa** 3,68 (=)

**2.koa** 3,22 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 130,00 (=)

idixkoak 200,00 (=)

**Aretze nabarrak:**

urruxak 108,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberrak: 2,70/2,80

Zaldi-behorrak: 1,55/1,69

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 7,40/8,10

8-10 kilokoak: 6,30/6,60

ñeko Mercedes etxean erosia eta errebisio guztiak bertan eginak. Egoera ezin hobean. ☎948 122815 / 600 699266.



**Hyundai Santa Fe 2,4** GLS salgai. Egoera onean. ☎948 630342/ 637 241425.



**Opel Astra 1.7 DTI**, 2002.urtekoa salgai. 3.000 euro. Egoera onean eta ITV pasatu berria. ☎686 108298



**Opel Corsa 1.7 DTI** autoa salgai. 2001ekoa. 185.000 kilometro. Prezio negoziagarria. ☎626 349503.

**MOTORRAK**  
tailerrak

**MENDAUR MOTOR**  
948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

**GANIX**  
TAILERRA  
Ibilgailuen mekanika eta elektrizitateak  
BERA FIAT zerbitzua  
Burlandata, 7 • Tel: 948 630 647

**ANIMALIAK**  
oparitzeko

**ITUREN.** Bi katakume beltz (emeak) oparitzeko. Ama ehiztari bikaina. ☎948 451787.

**ANIMALIAK**  
salgai

**3ahuntza** salgai, bat kumea egiteko. ☎620 108147.

**Hiru asto eme** salgai. ☎667 94216.



**DENETARIK**  
salerosketak

**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287 /699 461394.

Kirola egiteko, **lasterka egiteko zinta** eta **muskulaziorako makina** salgai. ☎699 375558.

Egongelako haritzeko **armairua** salgai. Hiru modulokoa. Egoera onean. Prezioa adosteko. ☎617 461649.

Borsini markako **akordeoia** salgai. 120 baxukoa. Botoiekin. Prezioa: 2.000 euro. ☎948 630756.

**Samsung TFT telebista** salgai. 24" wide, SincMaster P2470 HD (5ms). TDT sintonizadorea. Pannoramikoa, 1.920 x 1.080 pixel (Full HD), HD sintonizadorea.

nizadore digitalarekin (TDT). Horrekin telebista digitaleko kateak eta irratia digitalak eskura (Baztanen 46 kate digital eta 4 analogiko). Ia berria, lau hilabeteko erabilera. Prezioa: 200 euro. ☎948 581420.



Ferroli gasoleozko **berogailua** salgai. Gutxi erabilia eta egoera onean. ☎618 962777.



**DENETARIK**  
galdu-aurkituak

**BERA.** Uztailaren 2an Altzate eta Legia karriken artean Ford kotxearen eta bertzelako giltza batzuk galdu dira. ☎948 630156.

**Betaurreko graduatuak** galdu dira Mendaurrerako bide zaharrean, Aurtiztik joanda. Pasta beltza dute. ☎669 948140.

**LESAKA.** Plaza Berritik elizarako tartean urrezko katea lauburuarekin galdu da, irailaren 19an. ☎687 220017.

**Martiko**  
Pol. Zainen, s/n.  
31780 Bera, Nafarroa  
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036  
www.martiko.com  
"Atalduen adindar eta onak"

**Martikorekin zu zeu sukaldari.**

**DENDA**  
KOKOTZUA  
ASTILHEKIN  
ORTZALERA

8.30etik  
12.30era

14.30etik  
17.00etara

948 631 218  
Kanttonberri 1, BERA  
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

**KATEA-BIKE**

**EDARRIAK**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. Fax: 948 63 10 27

**www.ttipi.net**

>> berriak  
>> agenda  
>> urtebetetzeak  
>> merkatu ttikia ...

**www.ttipi.net** atariak parte hartzeko aukera eta balabide ugari ditu:  
>> Artikulu baten gainean klikatzean, artikulusean bukatzen aukera dago irakurritakoari buruz iritzia eman...  
>> Norberak bere edukiak bidaltzeko: agendan argitaratzeko, urtebetetzeak, merkatu ttikiro iragarkiak...  
>> Denda bertutak: urtebetetzeak, eskolak, iragarkiak...

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



**AIORA FAGOAGA IZA** irundarrak urriaren 5ean 9 urte bete ditu. Zorionak! Muxu bat Malen ahizpa, Eider eta Izaro lehengusinak eta familia.




**ENERITZ ARANBURU GALARREGI** etxalartarrak urriaren 23an lehen urtebetetzea eginen du. Zorionak eta amaxiren partetik.



**GOIZUETAKO UXUE APEZTEGIA UGARTE** gure tottorriak urtea bete du uztailaren 13an. Zorionak eta muxu asko aton-amonan, osaba eta berexiki izeba Maitearen partetik.



**EÑAUT ZUBIRI ARBURUAK** urriaren 19an 8 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



**IORITZ TAPI ALVAREZ** beratarrak urriaren 22an urtea beteko du. Zorionak familia guztiaren eta berexiki Unax lehengusaren partetik.



Berako **ANE OTAMENDI ABRIL** gure etxeko neskatxak 7 urte bete ditu urriaren 5ean. Prestatu berendu goxoa lagunekin ongi pasatzeko. Muxu haundi bat attatto, amatto, Naroa eta familia guztiaren partetik. Zorionak!



30 urte elkarrekin ez direlako egunero egiten, zorionak **JUAN** eta **JUAINAS!**



Sunbilla eta Urdazubiko **PABLO IRAZOKI OLAIZOLAK** 6 urte bete ditu urriaren 10ean. Zorionak familia guztiaren partetik.



**ASIER MUTUBERRIA PAGOLA** aranztarrak urriaren 20an lehenbiziko urtea beteko du. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



**HELENE ALZURI LUJANBIO** aranztarrak urriaren 14an urtea beteko du. Usoak urrian bezala orain urtebete etorri zinen guregana. Aita-txo-amatxo eta familiaren partetik.



**JULEN ZELAIETA IRIARTE** urtea bete ditu urriaren 8an. Zorionak guraso eta arreba-uren partetik. Kontuz sagardoarekin!



**SARA SANTESTEBAN OTXANDORENAK** 4 urte bete ditu urriaren 4an. Zorionak Zubietako familia guztiaren eta berexiki aitato eta amatxoren partetik. Muxu potoloto bat printzexa.



**NAROA** eta **AITZIBER ZOZAI**A **JUANENAK** 2 eta 4 urte beteko dituzte urriaren 4an eta azaroaren 9an. Zorionak Donamariako familia guztiaren partetik eta berexiki Alaitz lehengusaren partetik. Muxu haundi bana pitufinas.




**SARA** eta **KATTALIN TXOPERENA LACAR** lesakarrek uztailaren 28an eta urriaren 9an 4 eta 6 urte bete dituzte. Zorionak gure etxeko sorgintxoei attatto eta amatxoren partetik.



Urdazubiko **ZUHAITZ BAZTERRIAK** eta **PABLO IRAZOKI** urriaren 7an eta 10ean 8 eta 6 urte bete dituzte. Zorionak Landibarko bi bihurrirei Alizaren partetik.



**ANDER MARIEZKURRENA MIKEO** auriztarrak urtea bete du urriaren 9an. Zorionak aita, ama eta berexiki anaia Xabierren partetik.



Berako **JOELLEK** 4 urte beteko ditu urriaren 26an. Zorionak osaba, 'atia', Aintzane eta Mikelen partetik eta lau muxu haundi amaren partetik.



**ENERITZ ARANBURU GALARREGI** etxalartarrak urtea beteko du urriaren 23an. Zorionak bihotza!



**ITSASO LAZARRAGA ZEREZOK** urtea beteko du urriaren 20an. Zorionak ataxi eta amaxiren partetik.



**ITSASO LAZARRAGA ZEREZOK** urtea beteko du urriaren 20an. Zorionak izeba eta osabaren partetik.



**ONINTZA OIARTZABAL MAISTERRENAK** urteak beteko ditu urriaren 16an. Zorionak seigarren urtebetetzean, bihurritxo! Familiaren partetik muxu bat.



**PAULA PERURENA LABAIEN** leiztarrak 8 urte beteko ditu urriaren 14an. Zorionak politte! Muxu bat.



**XABI URREAGA** elbetearrak urteak beteko ditu urriaren 22an. Zure eguna ongi pasatu eta zorionak familia eta lagunaren partetik.



**ROSARIO MONACO** leiztarrak 81 urte bete ditu urriaren 7an. Zorionak Auritzko familiaren partetik.



**KIARA AGUDO SANZ** olaztarrak 6 urte bete ditu urriaren 8an. Zorionak Leiztako aitixi-amaxi, izeba-osabak eta berexiki Ekhi, Anartz eta bere anaia Enaitzen partetik. Txintxo portatu bihurri!



Eii! Ze uste duzu Kaxkarrak atzendu garela! Pixkot berandu baina zorionak eta muxu haundi bat denen partetik.



Donamariako gure publizistak atzendu garela! Pixkot berandu baina zorionak eta muxu haundi bat denen partetik.

## t tipi-ttapa FUNDAZIOAK

## zure laguntza behar du

eginzazu ttipi-ttaparen alde proiektu zenbakia: 15.996

Dagoeneko 856 LAGUNEX egin dute gure alde

Eskerrik asko

Zure laguntza eskertzeko, poltsa eder hau izanen duzu opari.

Ezka ezazu ttipi-ttaparen proiektua aukeratu izanaren frogagarria Nafarroako Kutsaren zure bulegoan etxeko ezazu ttipi-ttapara 2010eko irabaztearen 30a baino lehen.

gure ezkerreko laguntza proiektuak **can**



# TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!



**DESKONTUAK**  
**ZOZKETAK**  
**ALDIZKARIA**  
**MUSUTRUK**

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

## ZOZKETAK

t tipi txarteldun guztien artean  
zozketatuko dira sari hauek

527 ALEKO IRABAZLEAK

\* ONDDO TA PUNTO KAMISETA

Itziar Iriarte | NARBARTE

\* TXAPELA BURUAN 2 KAMISETA

Garbiñe Leiza | ITUREN

\* IKASTOLEN ELKARTEA CD-ROMA

Axun Irigoien | ELIZONDO

\* MARTIKO LOTEA

Tere Korta | BERA

\* BIDE ERTZEAN MUSIKA CDA

Izaskun Altzu | ITUREN

\* ELKAR 2 LIBURU

Itziar Arburua | ZUGARRAMURDI

## ZORIONAK

\* Hilabete bateko epea sariak bilzteko

## TTIPI SASKIA

TTIPI-TTAPAKO MOTXILA  
GURE GORPUTZA JOLASA

FATIMA LIBURUA

DEABRUAK TEILATUETAN  
KAMISETA

PIRRITX ETA PORROTX  
DVDA



PIRRITX, PORROTX  
eta MARIMOTOTS  
[www.katxiporreta.com](http://www.katxiporreta.com)



KAMISETA 1  
ONIN ART

[www.oninart.com](http://www.oninart.com)



1973



2 LIBURU  
EREIN

[www.erein.com](http://www.erein.com)



KAMISETA 1  
ONDDO  
TA PUNTO

[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)

## DESKONTUAK

**OSTYZ**  
%10 konporkeretan

**nafarpres**  
%10 liburu eta ikas materialen  
testu liburuak eta bidaiak ezik

JUAN J. PIKABEA  
%10 gaitza marka batzutan ezik

**antiazkuloa**  
%10 multzikutan

**SANSIÑENA**  
CITROËN  
%10 olio aldaketan

## urriak 23 larunbata

10:00etan: Lituaniako Ignara Urdetxea

11:00etan: "Kivola Berria" Arzakari Koroakaberri Lehiaketa Bantolan

12:00etan: Barakaldoan Lehiaketa eta Txibitibantak

## urriak 24 igandea

9:00etan: Lehiaketa berrak, guztiak eta sagardo botilak  
Olarri behar dira Ricardo Baroja eskolara

10:00etan: Eskulangileen azoka eta barakalotarra

11:00etan: Bortzietako Gaisoa eta Sagardo Lehiaketa eta Bera Trikitixa taldea

12:00etan: Musika Eskolako inuslarien eta Berako Bantolan kalejira

16:00etan: Haurrentzat Ikuskizuna Alzateko plazan: Zirikoa Zirkoos

Zahar Etxean eskolaren erakusketa eta trikitilariak

17:00etan: Lehiaketetako sari banaketak, erlantis eta bertsoariak:  
Julen Zelaleja eta Manolo Arzozena

18etan: Gure Txokoako dantzarien saioa eta dantzaldia: Trikitilariak

Egun guzian trikitilariak, talonk, jaki dantzetak...

Euria bada ekitaldiak Alzateko frontoian eta Toki Ona Kiroldegian

# Iurraren eguna

## 2010

### urriak 24 Beran

